



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Berdintasuna
Igualdad

2023ko UDAL AURREKONTUEN AZTERKETA GENERO IKUSPEGITIK

2023ko URTARRILA

INDICE

INDICE	1
1. LEGE ESPARRUA	3
2. GENERO-IKUSPEGIA BERNERATZEN DUTEN AURREKONTUAK	5
3. DONOSTIAKO UDALEKO IBILBIDEA UDAL AURREKONTUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEARI DAGOKIONEZ	6
4. AURREKONTU OROKORRAK	9
5. GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZI HANDIENA DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA ETA GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA	17
5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	24
5.1.1. UDALTZAINGOA	24
5.1.2. MUGIKORTASUN BERTIKALA	25
5.1.3. HIRI MUGIKORTASUNA	26
5.1.4. HIRIGINTZA.....	27
5.1.5. DONOSTIAKO ETXEGINTZA.....	29
5.1.6. BIDE PUBLIKOAK.....	30
5.1.7. HERRI ARGITERIA.....	31
5.1.8. PARKE ETA LORATEGIAK.....	32
5.1.9. HONDARTZAK.....	34
5.2. GIZARTE BABESEKO ETA SUSTAPENeko JARDUERAK	35
5.2.1. BERDINTASUNA.....	35
5.2.2. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA.....	39
5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA.....	40
5.2.4. GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK.....	41
5.2.5. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	42
5.2.6. APARTAMENTU TUTELATUAK	43
5.2.7. GIZARTE ABEGI ETXEA.....	44
5.2.8. GIZARTERATZEA	45
5.2.9. ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA.....	46
5.2.10. ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA	47
5.2.11. ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	48
5.2.12. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA.....	49
5.2.13. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK.....	50
5.2.14. ZAHAR ETXEAK	51

5.3. LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	53
5.3.1. OSASUN SUSTAPENA	53
5.3.2. OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA.....	54
5.3.3. HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA	55
5.3.4. UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (3 PROGRAMA): MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK). 56	
5.3.5. HEZIKETARAKO PROGRAMAK	58
5.3.6. GIZA ESKUBIDEAK	59
5.3.7. KULTURA ANIZTASUNA	60
5.3.8. DONOSTIA KULTURA	61
5.3.9. EUSKARA	63
5.3.11. GAZTERIA	64
5.3.12. DONOSTIA KIROLA, ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)	65
5.4. JARDUKETA EKONOMIKOAK.....	68
5.4.1. DONOSTIA TURISMO.....	68
5.4.2. DONOSTIAKO SUSTAPENA, SA	69
5.4.3. DBUS.	71
5.4.4. HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	72
5.4.5. PROIEKTU ETA OBRAK	73
5.5. JARDUKETA OROKORRAK	74
5.5.1. HERRITARREN PARTE HARTZEA.....	74

1. LEGE ESPARRUA

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIARI dagokionez, aurtan nabarmendu behar da **martxoaren 3ko 1/2022 Legearen** bidez onartu egin dela **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa**. Lege horrek, aurrekontu publikoetan genero ikuspegia txertatzearekin lotutako ekarpen berri batzuk egin ditu. Zehazki, puntu hauetan zentratu dira udal mailako aldaketak:

1/2022 LEGEA, MARTXOAREN 3koa, EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN (4/2005 Legea) BIGARREN ALDAKETA EGITEKOA	“3.5 art.: Euskal botere publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.” (Antzeko edukia, artikulua zenbakia baizik ez da aldatzen)
	3.14 art.: Berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea: Euskal botere publikoek berdintasun-politiken berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatu behar dute, eta gardentasuna eta herritarrei kontu ematea bermatu, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko . (Eduki berria)
	14.1 art.: Euskal administrazio publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute euren aurrekontu publikoetan, bereziki haiek diseinatzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak ezabatzen laguntzeko. Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, funtzio hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta trebakuntza prozesu egokiak abiarazteko . (Eduki berria)
	14.2 art.: Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Foru Administrazioak eta Toki Administrazioek euren aurrekontuetan urtero esleitu eta zehaztuko dute zer baliabide ekonomiko behar diren lege honetan aurreikusitako funtzioak baliatzeko eta aurreikusitako neurriak exekutatzeko . (Antzeko edukia, artikulua zenbakia baizik ez da aldatzen)

Gainera, autonomia erkidegoan, indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planean ezarritakoa nabarmendu behar da:

EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA. GOBERNU ONA ARDATZA	Bi helburu espezifiko GO. 2. HELBURUA: Berdintasun politikak garatzeko aurrekontuak handitzea. GO. 10. HELBURUA. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.
---	--

Era berean, **DONOSTIAKO UDALEKO UDAL ARAUDIAK** berak, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planaren (2020-2024)** bidez (Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko urriaren 20an onartua), hainbat neurri jasotzen ditu helburu hori betetzeko:

DONOSTIAKO UDALEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA (2020-2024) LEHENENGO PROIEKTU EMAITZA: <i>“Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak”</i>	Azpi-proiektua: <i>Berdintasuna, erabakiak hartzeko funtsezko elementua:</i> 1.3 neurria. Aurrekontu parte hartzaileetan berdintasuna indartzea. Azpi-proiektua: <i>Aurrekontuen analisisa, genero ikuspegitik</i> 1.6 neurria. Programa gehiago aztertzea, genero ikuspegitik. 1.7 neurria. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea. 1.8 neurria. Kudeaketa planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuetan sartu diren aztertzea. 1.9 neurria. Aurrekontuko diru sarrerak aztertzen hasia. 1.10 neurria. Aurrekontu programak aztertzean hautemandako desberdintasunak gainditzeko neurriak proposatzea.
--	---

2. GENERO-IKUSPEGIA BERNERATZEN DUTEN AURREKONTUAK

Aurrekontu publikoa da politika publikoak batzen dituen eta horiek diseinatu, planifikatu eta kudeatzen dituen berezko **zeharkako tresna**.

Generoaren ikuspuntua jasotzen duen aurrekontu publiko bat aipatzen dugunena, **emakume eta gizonen artean**, politiko publikoek eragiten duten jardute-eremu guztietan, **posizio sozialeko, ekonomikoko, ordezkaritzako eta partaidetzazko partidari dagokionez dagoen aldea** kontuan izateari buruz ari gara mintzatzen.

Generoaren ikuspuntua jasotzen duen aurrekontu publiko batean faktore hori jaso behar da hura zehazterakoan. Azken helburua hura gauzatuz generoarekin lotuta hautemandako balizko ezberdintasunak ezabatzen ari ote diren edo, aitzitik, horiek mantendu edo, are, areagotzen ari ote diren **ebalatu eta neurtu ahal izatea da**.

Aurrekontu publikoek generoa dute, eta ez dira, inolaz ere, neutralak. Beraz, berdintasuna sustatuko duten politikak garatu nahi baldin baditugu, ezinbestekoa da aurrekontuak generoaren ikuspuntu batekin garatu eta aztertzea.

Beraz, bikoitza da genero ikuspegiarekin landutako aurrekontuen helburua:

1. **Aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten eragina ezagutzea**, eta, ahal den neurrian, askotariko diskriminazioa eragiten duten beste faktore batzuk kontuan hartzea, hala nola adina, migrazio estatusa, errenta maila, arraza eta genero identitatea, besteak beste. Kontua ez da ebaluatzea ea gauza bera gastatzen den emakumeentzat eta gizonentzat, baizik eta gastu hori haien benetako beharretara egokituta dagoen.
2. **Berdintasuna sustatzeko tresna izatea**. Gaur egun, genero mainstreaming da berdintasun eragingarriantza aurrerapausoak egiteko formula nagusietako bat. Estrategia horren helburua da jarduera publiko guztiak genero ikuspegitik berrikustea, genero desberdintasunak betikotu edo areagotu ez daitezen.

Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoak, eraginkorra izango bada, konpromiso horiek bermatuko dituzten neurriak behar ditu, esate baterako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko araudia sortzea, aurrekontu baliabideak emendatzea eta politikak, politiken plangintza eta ebaluazioa eta gardentasunaren kulturaren sustapena garatzeko behar bezala prestatuta eta legitimatuta dauden pertsonak eta egiturak antolatzea.

3. DONOSTIAKO UDALEKO IBILBIDEA UDAL AURREKONTUETAN GENERO- IKUSPEGIA TXERTATZEARI DAGOKIONEZ

Genero-ikuspegia barneratzen duten aurrekontuak eratzeko prozesua 2013ko ekainean hasi zen, Berdintasuneko Negoziatuak Andaluziako Juntak arlo horretan izandako esperientzia ezagutzeko lan-jardunaldia antolatu zuenean. Jardunaldi horretan politikariek eta zuzendariak parte hartu zuten, baita Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuak unitateko teknikariek, eta hainbat departamentutan aurrekontua eratzeko ardura duten teknikariek ere.

2013ko uztailan, Berdintasunaren eta Ogasunaren atalek metodologia bat adostu zuten. Nahiz eta metodologia horrek Andaluziako esperientziaren elementuak hartu zituen, Donostiako Udalaren tamainara, eskumenetara eta denboretara egokitu zen.

Une horretatik aurrera, aurrekontu programei eta horiei lotutako jarduerari zein langileei buruzko informazioa biltzen hasi ziren, Euskal Herriko Unibertsitateko Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga irakasleen aholkularitzarekin.

2014ko otsailan, “Aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko gomendio txostena” argitaratu zen, ordurako Udalbatzak onartua zuen 2014ko aurrekontu proposamenari zegokionez, eta horrek ezarri zituen oinarri metodologikoa eta gomendioei jarraituta eman beharreko hurrengo urratsak. Gainera, aurrez bildutako informazioa aztertuta, prozesuan horiek guztiak lehentasunez zein arloekin sakondu behar ziren identifikatu zuen. Hauek ziren arlo horiek: Azpiegiturak eta hiri zerbitzuak, Mugikortasuna, Gizarte Ekintza, Gizarte Sustapena eta Herri Partaidetza eta Donostia Kultura.

2014an zehar gobernu taldeak aurrekontuek duten genero eraginari buruzko prestakuntza jaso zuen, eta, halaber, lan prestakuntza saio bat egin zen aipatutako arloekin eta Ogasuneko eta Berdintasuneko teknikariek.

2014ko abenduan, “Udal aurrekontuak genero ikuspegitik-2015” izeneko txostena aurkeztu zen, 2015eko aurrekontuarekin lotuta, une hartan proposamen-fasean zena.

Hainbat hilabeteko geldialdiaren ondotik, 2015eko azken hiruhilekoan prozesuari heldu zitzaion berriro. Programazio, Ikerketa eta Aurrekontuen unitatearekin zuzeneko lankidetzan, **2015eko abenduan “Udal aurrekontuen analisisa genero-ikuspegitik 2016”** izeneko txostena aurkeztu zen, 2016ko aurrekontuarekin lotuta, une hartan proposamen-fasean zena. Azken horretan bi aldaketa nagusi sartu ziren:

- Txostenean udal aurrekontuak aztertu ziren soilik. Langileei eta kontratazioari buruzko azterketa txosten espezifikoak egin ziren.
- Txostena aurrekontu programen arabera egituratu zen, departamentuen edo zuzendaritzen arabera egin beharrean.

Ordutik, Berdintasun Negoziatua eta Programazio, Ikerketa eta Aurrekontuen Unitatea elkarrekin ari dira lanean genero-ikuspegia udal aurrekontuetan sartzeko prozesuan.

Prozesu horren ondorioz, Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **III. Planaren ebaluazio txostenean** (2014-2018) jasotzen den eran:

- **Berdintasun arloko aurrekontu-programa eta sail ugaritako berdintasun-partidak areagotu egin dira**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean jasotzen diren neurriak garatzea ahalbidetu dutenak.
- Berdintasunerako **gastu eraldatzailea areagotu egin da**.
- **Berdintasuna gaineratu da aurrekontuak eratzekeo prozesuan**: norabide askotako aurrekontuen proposamena, aurrekontu-eztabaidan gaineratzea, berdintasun arloan errespetatu beharreko gutxieneko politiko batzuk identifikatuz.

Orain arte lortutakoa indartuz, eta aurrera egiten saiatzeko asmoarekin, 2020ko urriaren 20an Tokiko Gobernu Batzordeak onartutako **Donostiako Udaleko Berdintasunerako IV. Planean**, *Gobernu Onaren Ardatzaren* barnean, **Aurrekontuak eta Kudeaketa feministako planak** atalera bideratutako *Proiektu-Emitza* bat jasotzen da. Asko dira esparru horrekin lotutako neurriak:

BERDINTASUNA, FUNTSEZKO ELEMENTUA ERABAKIAK HARTZEARI DAGOKIONEZ:

1.3. Aurrekontu parte-hartzaileetan berdintasuna indartzea.

AURREKONTUAK GENERO-IKUSPEGITIK AZTERTZEA:

- 1.6. Programa gehiago aztertzea genero-ikuspegitik.
- 1.7. "Partida moreen" egikaritzearen gaineko kontrola hobetzea.
- 1.8. Kudeaketako-planetako berdintasun-ekintzak aurrekontuan barneratzen ote diren aztertzea.
- 1.9. Aurrekontuaren sarrera aztertzen hasia.
- 1.10. Aurrekontu-programen analisisian hautemandako ezberdintasunak gainditzeko neurriak proposatzea.

Bestalde, aipatzekoa da **2022ko aurrekontuei dagokionez, 2021eko irailean, Berdintasunerako Unitateko teknikari guztiek parte hartu zutela**, Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Sailak gonbidatuta, administrazio-unitatea bakoitzarekin (sailak, erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak eta sozietate anonimoak) **egindako bileretan**.

Berdintasun-teknikari horietako bakoitzak parte hartu zuen berdintasunaren arloan solaskide diren administrazio-unitateekin egindako bileretan, "partida moreen", hots, berdintasunerako neurri espezifikoetara bideratutako partiden, jarraipen ahalik eta estuena egin eta genero-ikuspegitik sail bakoitzeko aurrekontuen eragina xehetasun gehiagoz ezagutze aldera. Guztira 19 bilkura egin ziren.

Azkenik eta **2023ko aurrekontuen prozesuaren baitako berrikuntza gisa**, genero ikuspegiaren txertaketari dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- ✓ Genero ikuspegiarekin aztertutako programei begira, **informazioa biltzeko fitxa berri bat** txertatu da. Fitxa horri esker, informazio bilketa sistematizatzear gain, bildutako datuen irismena emendatu da, eta ondoko bi gastu mota hauetan sailkatu da aurrekontu zuzkidura:
 - Berdintasuna esplizituki sustatuko duten programak/neurriak, berariazko aurrekontu zuzkidura osoarekin. Ekintza/programa/zerbitzu honen helburu nagusiak dira, alde batetik, genero desberdintasuna bermatzen den oinarrizko egiturak haustea, eta bestetik, desberdintasunak eratzten eta sortzen dituzten mekanismoak desgitea. Alegia, orain arte **Gastu Eraldatzailea** esan duguna.

- **Neurri osagarriak** aurrekontu programako beste zuzkiduretan, horietan ere genero ikuspegiaren txertaketan aurrerapausoak egiteko.
- ✓ Bestalde, **40tik 44ra emendatu da genero ikuspegitik aztertutako programa kopurua**. Zehazki, programa hauek batu zaizkie aurrekoei:
 - Euskara,
 - Zahar etxeak,
 - Osasunaren sustapena,
 - Osasun publikoa eta animalien ongizatea.

4. AURREKONTU OROKORRAK

Txosten honek aintzat hartu duen Donostiako Udalaren 2023. urterako **aurrekontu proposamena 461.913.070,00 €**-koa da. Beraz, 2022ko udal aurrekontuekin alderatuta, **37.086.149,00 €-koa (+ % 8,73)** da **igoeraren** guztizkoa, urte hartakoa 424.826.921,00 €-koa izan baitzen.

Jarraian, sailkapen motaren arabera aztertuko ditugu igoera/jaitsiera mailak eta aurrekontuen guztizkoan ehuneko handienak dituzten arloak. Hauexek bereizten ditugu:

GASTU ARLOAK

2023an, guztizko **sei gastu arloetatik lau handitu egin dira. *Jarduketa ekonomikoak*** arloa izan da igoera handiena izan duena **(+ %36,37)**, eta ondotik ***Oinarrizko zerbitzu publikoak*** arloa, **+ % 7,17ko** igoerarekin. Era berean, bi arlo horiexek dira udal aurrekontuetan ehuneko handiena hartzen dutenak, % 37,30 *Oinarrizko zerbitzu publikoen* kasuan eta % 23,84 *Jarduera ekonomikoen* kasuan. Azken kasu horretan, igo egin da haren proportzioa 2022ko aurrekontuan zuenarekin (% 19,01) alderatuta.

Handitu egin diren beste bi arloei dagokienez, ***Babes eta sustapen sozialeko jarduketa*** arloak (arlo esanguratsua genero ikuspegitik) **+ % 1,57ko** igoera du aurrekontuetan, eta ***Jarduketa Orokorrak*** arloak **+ % 2,66koa**.

Azkenik, bi dira 2022ko aurrekontuen aldean zuzkidura txikiagoa dutenak: ***Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena*** arloak **(- % 1,02)** eta ***Zor publikoa*** arloak **(- % 33,83)**.

GASTU-ARLOA	2022		2023		Aldea	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	160.853.826,00	%37,86	172.307.326,00	%37,30	11.453.500,00	%7,12
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	34.810.072,00	%8,19	35.356.643,00	%7,65	546.571,00	%1,57
LEHTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	84.241.710,00	%19,83	83.382.536,00	%18,05	-859.174,00	-%1,02
JARDUKETA EKONOMIKOAK	80.751.410,00	%19,01	110.119.390,00	%23,84	29.367.980,00	%36,37
JARDUKETA OROKORRA	50.118.707,00	%11,80	51.449.404,00	%11,14	1.330.697,00	%2,66
ZOR PUBLIKOA	14.051.196,00	%3,31	9.297.771,00	%2,01	-4.753.425,00	-%33,83
TOTAL	424.826.921,00	%100,00	461.913.070,00	%100,00	37.086.149,00	%8,73

GASTU POLITIKAK

19 gastu politikeetatik 13 igo egin dira 2022ko ekitaldikoan aldean, **5 jaitsi egin dira** eta **batek 2022ko kopuru berari eutsi dio** (***Beste jarduketa ekonomiko batzuk***).

Hauexek izan dira jaitsierak izan dituzten politikak: ***Ingurumena*** (-471.067,00 €, - % 2,95), ***Erretiro pentsioak*** (-15.000,00 €, - % 75,00), ***Enplegatuen aldeko beste prestazioak*** (-1.250.000,00 €, - % 100,00), ***Kirola*** (-3.144.682,00 €, - % 12,38) eta ***Zor publikoa*** (-4.753.425,00 €, - % 33,83).

Igo egin diren politikei dagokienez, hasteko nabarmentzekoak dira **% 40tik gorako igoerak** izan dituzten bi politika, ***Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak*** (+ 10.450.728,00€, + % 49,87) eta ***Garraio publikoa*** (+18.540.000,00€, + % 40,25).

Bestalde, lau dira % 5 eta % 14 bitarteko igoera izan duten politikak: **Etxebizitza eta Hirigintza** (+ 4.724.642,00 €, + % 13,49) **Komunitate Ongizatea** (+ 5.051.029,00 €, + % 8,64), **Finantza eta zerga administrazioa** (+ 924.551,00 €, + % 8,10), **Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena** (+ 1.811.571,00 €, + % 5,40%) eta **Hezkuntza** (+ 816.975,00 €, + % 5,65).

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena kasuan, genero ikuspegitik politika garrantzitsua baita, + % 2,77tik gorakoa izan da igoera 2022koaren aldean.

Igo egin diren gainerako politikak, guztira 6, + % 0,08 (Gobernu organoak) eta + % 4,18 (Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna) bitartean emendatu dira.

GASTU POLITIKAK	2022		2023		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	160.853.826,00	%37,86	172.307.326,00	%37,30	11.453.500,00	%7,12
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	51.371.859,00	%12,09	53.520.755,00	%11,59	2.148.896,00	%4,18
Etxebizitza eta Hirigintza	35.011.301,00	%8,24	39.735.943,00	%8,60	4.724.642,00	%13,49
Komunitate-Ongizatea	58.486.473,00	%13,77	63.537.502,00	%13,76	5.051.029,00	%8,64
Ingurumena	15.984.193,00	%3,76	15.513.126,00	%3,36	-471.067,00	-%2,95
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA	34.810.072,00	%8,19	35.356.643,00	%7,65	546.571,00	%1,57
Erretiro pentsioak	20.000,00	%0,00	5.000,00	%0,00	-15.000,00	-%75,00
Enplegatuen aldeko beste prestazio	1.250.000,00	%0,29	0,00	%0,00	-1.250.000,00	-%100,00
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	33.540.072,00	%7,89	35.351.643,00	%7,65	1.811.571,00	%5,40
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	84.241.710,00	%19,83	83.382.536,00	%18,05	-859.174,00	-%1,02
Osasuna	2.528.836,00	%0,60	2.605.084,00	%0,56	76.248,00	%3,02
Hezkuntza	14.467.406,00	%3,41	15.284.381,00	%3,31	816.975,00	%5,65
Kultura	41.843.950,00	%9,85	43.236.235,00	%9,36	1.392.285,00	%3,33
Kirola	25.401.518,00	%5,98	22.256.836,00	%4,82	-3.144.682,00	-%12,38
JARDUKETA EKONOMIKOAK	80.751.410,00	%19,01	110.119.390,00	%23,84	29.367.980,00	%36,37
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	20.954.941,00	%4,93	31.405.669,00	%6,80	10.450.728,00	%49,87
Garraio publikoa	46.060.422,00	%10,84	64.601.192,00	%13,99	18.540.770,00	%40,25
Azpiegiturak	13.614.677,00	%3,20	13.991.159,00	%3,03	376.482,00	%2,77
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	121.370,00	%0,03	121.370,00	%0,03	0,00	%0,00
JARDUKETA OROKORRA	50.118.707,00	%11,80	51.449.404,00	%11,14	1.330.697,00	%2,66
Gobernu organoak	6.920.281,00	%1,63	6.925.838,00	%1,50	5.557,00	%0,08
Asimintrazio orokorra	31.777.526,00	%7,48	32.178.115,00	%6,97	400.589,00	%1,26
Finantza eta zerga administrazioa	11.420.900,00	%2,69	12.345.451,00	%2,67	924.551,00	%8,10
ZOR PUBLIKOA	14.051.196,00	%3,31	9.297.771,00	%2,01	-4.753.425,00	-%33,83
Zor publikoa	14.051.196,00	%3,31	9.297.771,00	%2,01	-4.753.425,00	-%33,83
GUZTIRA	424.826.921,00	%100,00	461.913.070,00	%100,00	37.086.149,00	%8,73

Guztizko aurrekontuetan portzentaje handiena (% 10etik gorakoa) hartzen duten politikari dagokienez, hauexek dira, 2022an bezalaxe: **Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna** (% 11,59), **Komunitate Ongizatea** (% 13,76) eta **Garraio publikoa** (+ % 13,99).

AURREKONTU PROGRAMAK

2023ko aurrekontuei dagokienez, aipatzekoa da **Next Generation** funtsei lotutako **aurrekontu programa berri** batzuen sorrera. Horrenbestez, hauexek ditugu: **Turismo sektorearen jasangarritasuna eta modernizazioa** (2.695.000,00 €), **Merkataritza jardura turismo guneetan** (235.406,00 €), **Iraupen luzeko zaintzak**, genero ikuspegitik programa garrantzitsua baita zaintzekin lotuta dagoelako (159.559,00 €), **Emisio txikiko eremuak eta hiri garraioaren eraldaketa digitala eta iraunkorra** (17.182.235,00 €) eta **Innobus-tur elkartean** (2.196.000,00 €).

Programa horiei lotutako zenbatekoa **Udalak kudeatutako programa propioen eta udal enpresa publikoei lotutako aurrekontuaren artean banatzen da**, hala nola, DBUS, Donostiako Sustapena, Donostiako Etxegintza, Donostia Turismo eta Donostiatik-en artean.

Hauexek dira **% 100dik gorako igoera** izan duten beste aurrekontu programak: Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (+ 800.00,00 €, + % 305,34), Garapen ekonomikoa (+ 2.413.023,00 €, + % 273,91), Informatika-Udala (+ 1.250.000,00 €, + % 500,00).

% 20 eta % 100 bitarteko igoerekin: Eskailerak, arrapalak eta igogailuak (+80. 864,00 €, + % 22,91), Hirigintza (+ 68.648,00 €, + % 47,05), Babes zibila (+ 86.160,00 €, + % 53,05), Urak eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa (+ 211.206,00 €, + % 25,04), Herri argiteria (+ 1.674.934,00 €, + % 39,42), Saneamendua eta arazketa: Añarbe (+ 1.327.379,00 €, + % 20,76), Adineko pertsonen sustapena (+ 180.186,00 €, + % 36,68), Gizarte larrialdietarako laguntzak (+ 557.271,00 €, + % 20,69), Ulia Aterpetxea (+ 60.541,00 €, + % 22,98), Garraioaren arloko administrazio orokorra (+ 71.462,00 €, + % 30,04) Dbus (+ 18.606.308,00 €, + % 40,76), Ur hornidura: Añarbe (+ 891.425,00 €, + % 21,25), Lehendakaritza (+ 324.000,00 €, + % 22,51).

Hauexek dira gehien apaltzen diren programak, **% 20tik gorako jaitsierekin:** Mugikortasun bertikala (- 370.123,00 €, - % 39,58), Bide publikoak (- 1.640.761,00 €, - % 38,82), Iraunkortasuna (- 1.462.879,00 €, - % 49,59), Giza eskubideak (- 218.797,00 €, - % 26,54), Kirol instalazioak (- 4.260.253,00 €, - % 46,02), Anoeta Kiroldegia (- 4.237.715,00 €, - % 79,66), Bidaiarien hiri garraio kolektiboa (- 140.000,00 €, - % 99,15), Hiri proiektua (- 484.949,00 €, - % -60,92), Ekipamendu plana (- 1.599.531,00 €, - % -79,60), Ezustekoak (- 301.207,00 €, - % 27,35), Kudeaketa ekonomikoa (- 2.033.984,00 €, - % 32,81).

Bestalde, 2022ko urtean bezala, ez zaio aurrekonturik esleitu *Eraikuntza Zaharberritzea* programari. Eta, 2022ko uztailaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarrak Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia doktrinan oinarrituta hartutako erabakiari jarraiki, ez zaio aurrekonturik esleitu *Aldez aurretik erretiratzeko sariak* programari.

Guztizko aurrekontuetan portzentaje handienak (% 5etik gorakoak) dauzkaten programei dagokienez, errepikatu egiten dira 2022ko hiru programak: **Udaltzaingoa** (% 5,61), **Donostia Kultura** (% 6,86) eta **Dbus** (+ % 13,91).

AURREKONTU PROGRAMAK	2022		2023		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	160.853.826,00	%37,86	172.307.326,00	%37,30	11.453.500,00	%7,12
Herriarren segurtasuna eta mugikortasuna	51.371.859,00	%12,09	53.520.755,00	%11,59	2.148.896,00	%4,18
Udaltzaingoa	24.239.547,00	%5,71	25.899.781,00	%5,61	1.660.234,00	%6,85
Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua	6.805.974,00	%1,60	7.170.492,00	%1,55	364.518,00	%5,36
Eskaierak, arrapalak eta igogailuak	353.000,00	%0,08	433.864,00	%0,09	80.864,00	%22,91
Mugikortasun bertikala	935.123,00	%0,22	565.000,00	%0,12	-370.123,00	-%39,58
Hiri mugikortasuna	10.389.997,00	%2,45	10.513.267,00	%2,28	123.270,00	%1,19
Herri babesa	162.405,00	%0,04	248.565,00	%0,05	86.160,00	%53,05
Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta sorospena	8.485.813,00	%2,00	8.689.786,00	%1,88	203.973,00	%2,40
Etxebizitza et Hirigintza	35.011.301,00	%8,24	39.735.943,00	%8,60	4.724.642,00	%13,49
Hirigintza	9.155.424,00	%2,16	13.462.781,00	%2,91	4.307.357,00	%47,05
Donostiako etxebizitza enpresa erakunde publikoa	15.819.000,00	%3,72	18.532.400,00	%4,01	2.713.400,00	%17,15
Rehabilitación de la edificación	0,00	%0,00	0,00	%0,00	0,00	
Bide publikoak	4.226.709,00	%0,99	2.585.948,00	%0,56	-1.640.761,00	-%38,82
Zolaketa eta asfaltatzea	5.810.168,00	%1,37	5.154.814,00	%1,12	-655.354,00	-%11,28
Komunitate-ongizatea	58.486.473,00	%13,77	63.537.502,00	%13,76	5.051.029,00	%8,64
Saneamendua	5.076.247,00	%1,19	4.828.284,00	%1,05	-247.963,00	-%4,88
Ura	3.523.931,00	%0,83	3.502.597,00	%0,76	-21.334,00	-%0,61
Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa	843.632,00	%0,20	1.054.838,00	%0,23	211.206,00	%25,04
Hiriko hondakin solidoen bilketa	7.601.464,00	%1,79	8.612.501,00	%1,86	1.011.037,00	%13,30
Honkainen kudeaketa: San Marcos	3.315.519,00	%0,78	3.512.962,00	%0,76	197.443,00	%5,96
Honkainen tratatzea: San Marcos	10.370.654,00	%2,44	9.850.426,00	%2,13	-520.228,00	-%5,02
Bide eta etxaurren garbiketa	15.077.527,00	%3,55	17.125.991,00	%3,71	2.048.464,00	%13,59
Polloe	2.032.909,00	%0,48	1.403.000,00	%0,30	-629.909,00	-%30,99
Herri-argiteria	4.249.317,00	%1,00	5.924.251,00	%1,28	1.674.934,00	%39,42
Saneamendua eta arazketa: Añarbe	6.395.273,00	%1,51	7.722.652,00	%1,67	1.327.379,00	%20,76
Ingurumena	15.984.193,00	%3,76	15.513.126,00	%3,36	-471.067,00	-%2,95
Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa	410.797,00	%0,10	465.141,00	%0,10	54.344,00	%13,23
Parke eta lorategiak	7.857.158,00	%1,85	8.282.161,00	%1,79	425.003,00	%5,41
Artikutza	716.684,00	%0,17	839.998,00	%0,18	123.314,00	%17,21
Cristina Enea	661.000,00	%0,16	711.000,00	%0,15	50.000,00	%7,56
Iraunkortasuna	2.949.726,00	%0,69	1.486.847,00	%0,32	-1.462.879,00	-%49,59
Hiriguneetako hots-, argi eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa	287.732,00	%0,07	262.931,00	%0,06	-24.801,00	-%8,62
Hondartzak	3.101.096,00	%0,73	3.465.048,00	%0,75	363.952,00	%11,74
BABES ETA SUSTAPEN ZOZIALEKO JARDUKETAK	34.810.072,00	%8,19	35.356.643,00	%7,65	546.571,00	%1,57
Erretiro pentsioak	20.000,00	%0,00	5.000,00	%0,00	-15.000,00	-%75,00
Klase pasiboak	20.000,00	%0,00	5.000,00	%0,00	-15.000,00	-%75,00
Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk	1.250.000,00	%0,29	0,00	%0,00	-1.250.000,00	-%100,00
Aldez aurretik erretiratzeko sariak	1.250.000,00	%0,29	0,00	%0,00	-1.250.000,00	-%100,00
Gizarte-Zerbitzuak eta gizarte-sustapena	33.540.072,00	%7,89	35.351.643,00	%7,65	1.811.571,00	%5,40
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	842.984,00	%0,20	807.328,00	%0,17	-35.656,00	-%4,23
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.632.680,00	%1,09	4.873.323,00	%1,06	240.643,00	%5,19
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	1.954.276,00	%0,46	2.164.537,00	%0,47	210.261,00	%10,76
Donostia Lagunkoia	98.000,00	%0,02	99.470,00	%0,02	1.470,00	%1,50
Apartamentu tutelatuak	1.917.247,00	%0,45	2.111.671,00	%0,46	194.424,00	%10,14
Gizarte abegi etxea	1.378.956,00	%0,32	1.420.362,00	%0,31	41.406,00	%3,00
Gizarteratzea	5.105.073,00	%1,20	4.403.978,00	%0,95	-701.095,00	-%13,73
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	3.165.376,00	%0,75	3.425.142,00	%0,74	259.766,00	%8,21
Adineko pertsonen sustapena	491.283,00	%0,12	671.469,00	%0,15	180.186,00	%36,68
Zaharren egoitzak	918.755,00	%0,22	1.089.373,00	%0,24	170.618,00	%18,57
Etxez etxeko laguntza	9.214.984,00	%2,17	10.040.717,00	%2,17	825.733,00	%8,96
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.693.355,00	%0,63	3.250.626,00	%0,70	557.271,00	%20,69
Berdintasuna	1.127.103,00	%0,27	993.647,00	%0,22	-133.456,00	-%11,84
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	84.241.710,00	%19,83	83.382.536,00	%18,05	-859.174,00	-%1,02
Osasuna	2.528.836,00	%0,60	2.605.084,00	%0,56	76.248,00	%3,02
Komunak	692.433,00	%0,16	688.609,00	%0,15	-3.824,00	-%0,55
Osasun sustapena	191.210,00	%0,05	199.069,00	%0,04	7.859,00	%4,11
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	962.812,00	%0,23	995.088,00	%0,22	32.276,00	%3,35
Sorospen etxea	80.334,00	%0,02	82.922,00	%0,02	2.588,00	%3,22
La Perla balnearioa	602.047,00	%0,14	639.396,00	%0,14	37.349,00	%6,20

AURREKONTU PROGRAMAK	2022		2023		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
Hezkuntza	14.467.406,00	% 3,41	15.284.381,00	% 3,31	816.975,00	% 5,65
Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa	445.413,00	%0,10	455.514,00	%0,10	10.101,00	%2,27
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.459.907,00	%176	8.157.856,00	%177	697.949,00	%9,36
Udalaren musika eta dantza eskola	5.068.909,00	%119	5.368.419,00	%116	299.510,00	%5,91
Heziketa rako programak	267.716,00	%0,06	271.174,00	%0,06	3.458,00	%1,29
Giza eskubideak	824.380,00	%0,19	605.583,00	%0,13	-218.797,00	-%26,54
Kultur aniztasuna	401.081,00	%0,09	425.835,00	%0,09	24.754,00	%6,17
Kultura	41.843.950,00	% 9,85	43.236.235,00	% 9,36	1.392.285,00	% 3,33
Donostia Kultura	30.634.202,00	%7,21	31.697.617,00	%6,86	1.063.415,00	%3,47
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	159.738,00	%0,04	171.686,00	%0,04	11.948,00	%7,48
Tabakalera	1.690.000,00	%0,40	1.690.000,00	%0,37	0,00	%0,00
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	1.922.900,00	%0,45	2.103.900,00	%0,46	181.000,00	%9,41
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	726.474,00	%0,17	690.995,00	%0,15	-35.479,00	-%4,88
Euskara	2.987.961,00	%0,70	3.072.872,00	%0,67	84.911,00	%2,84
Zahar etxeak	1.334.071,00	%0,31	1.350.555,00	%0,29	16.484,00	%1,24
Gazteria	2.388.604,00	%0,56	2.458.610,00	%0,53	70.006,00	%2,93
Kirola	25.401.518,00	% 5,98	22.256.836,00	% 4,82	-3.144.682,00	-% 12,38
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	262.000,00	%0,06	1.062.000,00	%0,23	800.000,00	%305,34
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	4.558.149,00	%107	3.851.965,00	%0,83	-706.184,00	-%15,49
Donostia Kirola	3.030.079,00	%0,71	3.304.904,00	%0,72	274.825,00	%9,07
Kirol instalakuntzak	926.253,00	%0,22	500.000,00	%0,11	-426.253,00	-%46,02
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	11.305.522,00	%2,66	12.456.167,00	%2,70	1.150.645,00	%10,18
Anoeta Kiroldegia	5.319.515,00	%125	1.081.800,00	%0,23	-4.237.715,00	-%79,66
JARDUKETA EKONOMIKOAK	80.751.410,00	% 19,01	110.119.390,00	% 23,84	29.367.980,00	% 36,37
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	20.954.941,00	% 4,93	31.405.669,00	% 6,80	10.450.728,00	% 49,87
Azokak	3.166,00	%0,00	4.550,00	%0,00	1.384,00	%43,71
Donostia Turismo	3.827.986,00	%0,90	4.446.023,00	%0,96	618.037,00	%16,15
La Sirena aterpetxea	476.203,00	%0,11	540.481,00	%0,12	64.278,00	%13,50
Uliako aterpetxea	263.400,00	%0,06	323.941,00	%0,07	60.541,00	%22,98
Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa	53.609,00	%0,01	50.808,00	%0,01	-2.801,00	-%5,22
Ekonomiko-garapena	880.967,00	%0,21	3.293.990,00	%0,71	2.413.023,00	%273,91
Fomento S.A.	15.449.610,00	%3,64	22.745.876,00	%4,92	7.296.266,00	%47,23
Garraio publikoa	46.060.422,00	% 10,84	64.601.192,00	% 13,99	18.540.770,00	% 40,25
Garraioaren arloko administrazio orokorra	237.909,00	%0,06	309.371,00	%0,07	71.462,00	%30,04
Bidaiaaren taldekako hiri garraioa	141.200,00	%0,03	1.200,00	%0,00	-140.000,00	-%99,15
Beste bidaiarien garraioa	33.600,00	%0,01	36.600,00	%0,01	3.000,00	%8,93
Dbus	45.647.713,00	%10,75	64.254.021,00	%13,91	18.606.308,00	%40,76
Azpiegiturak	13.614.677,00	% 3,20	13.991.159,00	% 3,03	376.482,00	% 2,77
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.575.047,00	%0,37	1.432.213,00	%0,31	-142.834,00	-%9,07
Proiektu eta obrak	7.844.831,00	%185	7.472.722,00	%162	-372.109,00	-%4,74
Uraren hornikuntza: Añarbe	4.194.799,00	%0,99	5.086.224,00	%1,10	891.425,00	%21,25
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	121.370,00	% 0,03	121.370,00	% 0,03	0,00	% 0,00
Oficina municipal de información al consumidor/a	121.370,00	%0,03	121.370,00	%0,03	0,00	%0,00
JARDUKETA OROKORRAK	50.118.707,00	% 11,80	51.449.404,00	% 11,14	1.330.697,00	% 2,66
Gobernu organoak	6.920.281,00	% 1,63	6.925.838,00	% 1,50	5.557,00	% 0,08
Udal talde politikoak	3.731.042,00	%0,88	4.052.638,00	%0,88	321.596,00	%8,62
Gobernu organoak	2.393.142,00	%0,56	2.562.052,00	%0,55	168.910,00	%7,06
Hiri proiektua	796.097,00	%0,19	311.148,00	%0,07	-484.949,00	-%60,92
Zerbitzu orokorrak	31.777.526,00	% 7,48	32.178.115,00	% 6,97	400.589,00	% 1,26
Komunikazioak	753.429,00	%0,18	775.390,00	%0,17	21.961,00	%2,91
Eraikinak	2.008.565,00	%0,47	2.078.370,00	%0,45	69.805,00	%3,48
Informatika (Udala)	250.000,00	%0,06	1.500.000,00	%0,32	1.250.000,00	%500,00
Informatika	8.454.927,00	%199	8.520.043,00	%184	65.116,00	%0,77
Ekialdeko distritua	576.802,00	%0,14	528.383,00	%0,11	-48.419,00	-%8,39
Lehendakaritza	1.439.909,00	%0,34	1.764.020,00	%0,38	324.111,00	%22,51
Agiritegia	496.764,00	%0,12	525.987,00	%0,11	29.223,00	%5,88
Giza baliabideak	3.668.758,00	%0,86	3.826.870,00	%0,83	158.112,00	%4,31
Idazkaritza orokorra eta lege zerbitzuak	1.362.277,00	%0,32	1.441.423,00	%0,31	79.146,00	%5,81
Barne zerbitzu orokorrak	2.048.932,00	%0,48	2.283.903,00	%0,49	234.971,00	%11,47
Itzulpen bulegoa	392.645,00	%0,09	404.873,00	%0,09	12.228,00	%3,11

AURREKONTU PROGRAMAK	2022		2023		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
Ibilgailuak	939.012,00	%0,22	860.413,00	%0,19	-78.599,00	-%8,37
Ekipamendu plana	2.009.431,00	%0,47	409.900,00	%0,09	-1.599.531,00	-%79,60
Zeharkako zerbitzuak	233.306,00	%0,05	246.722,00	%0,05	13.416,00	%5,75
Udaleko informazio unitatea	625.375,00	%0,15	668.414,00	%0,14	43.039,00	%6,88
Herriarren parte hartzea	2.912.684,00	%0,69	2.739.293,00	%0,59	-173.391,00	-%5,95
Herriarren ganako arreta	2.503.503,00	%0,59	2.764.111,00	%0,60	260.608,00	%10,41
Hauteskundeak	0,00	%0,00	40.000,00	%0,01	40.000,00	
Ezustekoak	1.101.207,00	%0,26	800.000,00	%0,17	-301.207,00	-%27,35
Finantza eta zerga administrazioa	11.420.900,00	%2,69	12.345.451,00	%2,67	924.551,00	%8,10
Kudeaketa ekonomikoa	6.198.787,00	%1,46	4.164.803,00	%0,90	-2.033.984,00	-%32,81
Turismo-sektorearen jasagarritasuna eta modernizazioa	0,00	%0,00	1216.000,00	%0,26	1216.000,00	
Merkataritza jardueren turismo eremuetan	0,00	%0,00	235.406,00	%0,05	235.406,00	
Iraunpen luzeko zaintzak	0,00	%0,00	159.559,00	%0,03	159.559,00	
Emisio txikiko eremuak eta hiri garraioaren eraldaketa digitala eta iraunkorra	0,00	%0,00	1.261.613,00	%0,27	1.261.613,00	
Innobus-tur elkartean	0,00	%0,00	0,00	%0,00	0,00	
Tributu sistemaren kudeaketa	5.222.113,00	%1,23	5.308.070,00	%1,15	85.957,00	%1,65
ZOR PUBLIKOA	14.051.196,00	%3,31	9.297.771,00	%2,01	-4.753.425,00	-%33,83
Zor publikoa	14.051.196,00	%3,31	9.297.771,00	%2,01	-4.753.425,00	-%33,83
Zor publikoa	14.051.196,00	%3,31	9.297.771,00	%2,01	-4.753.425,00	-%33,83
GUZTIRA	424.826.921,00	%100,00	461.913.070,00	%100,00	37.086.149,00	%8,73

GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOA

Gastuen kapituluari dagokionez:

- Hauexek dira **igoera handienak** izan dituzten **kapituluak**: *Kapital transferentziak* (+ 4.361.712,00 €, + % 209,67) eta *Finantza gastuak* (+ 1.014.310,00 €, + % 64,57).
- Kapitulu hauek **apaltzen** dira: *Kreditu globala* (- 301.207,00 €, - % 27,35), *Finantza aktiboak* (- 717.676,00 €, - % 63,57) eta *Finantza pasiboak* (- 5.419.552,00 €, - % 28,03).
- Gainerako kapituluak: 1, 2, 4 eta 6. kapituluak + % **0,88** (Transferentzia arruntak) eta + % **21,15** (Inbertsio errealak) **bitarteko igoera** dute.
- 2022an bezala, 1. kapitulua (% 35,82) eta 2. kapitulua (% 37,59) dira **aurrekontuetan proportzio handiena dutenak**.

GASTUAK	2022		2023		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
1. Pertsonal gastuak	157.079.298,00	%36,97	165.436.026,00	%35,82	8.356.728,00	%5,32
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	155.338.392,00	%36,57	173.641.044,00	%37,59	18.302.652,00	%11,78
3. Finantza-gastuak	1.570.870,00	%0,37	2.585.180,00	%0,56	1.014.310,00	%64,57
4. Transferentzia arruntak	34.306.390,00	%8,08	34.608.324,00	%7,49	301.934,00	%0,88
5. Kreditu globala	1.101.207,00	%0,26	800.000,00	%0,17	-301.207,00	-%27,35
6. Inbertsio errealak	52.885.540,00	%12,45	64.072.788,00	%13,87	11.187.248,00	%21,15
7. Kapital-transferentziak	2.080.272,00	%0,49	6.441.984,00	%1,39	4.361.712,00	%209,67
8. Finantza-aktiboak	1.128.874,00	%0,27	411.198,00	%0,09	-717.676,00	-%63,57
9. Finantza-pasiboak	19.336.078,00	%4,55	13.916.526,00	%3,01	-5.419.552,00	-%28,03
GUZTIRA	424.826.921,00	%100,00	461.913.070,00	%100,00	37.086.149,00	%8,73

2023ko INBERTSIOAK

Aurreikuspenen arabera, **70.514.772 €**-koa izango da 6. eta 7. kapituluaren bitartez egin beharreko inbertsio finkatuen zenbatekoa. 2022an 54.965.812,00 €-ko inbertsioak onartu ziren, eta beraz, + % **28,29ko igoera** dago aurtengoan.

Aurrekontu programei dagokienez, honako hauetan biltzen dira inbertsio handienak: Hirigintza (% 12,44), Donostiako Etxegintza erakunde publikoa (% 9,03), Donostiako Sustapena SA (% 10,82), Dbus (% 27,17), Proiektuak eta obrak (% 7,04).

Eskuragarri dagoen informazioarekin ez dago aurreikusitako inbertsioen garrantzian eta genero inpaktuan sakontzerik, eta beraz, komenigarria litzateke etorkizunean aurreikusitako inbertsioei buruzko informazio zabalagoa izatea: inbertsioak erantzuten dion premiaren deskribapena, eragiten duen publiko hartzailea sexuaren arabera bereizita... eta batzuk edo besteak lehenesteko irizpideak.

Nolanahi ere, **generoari dagokionez garrantzitsua baita**, aipatzekoak dira programa hauetan egingo diren inbertsioak: Hirigintzan (15.000 €), **Plangintzan genero inpaktua aztertzeko**; Hezkuntzan (100.000 €) **patio inklusiboak** egiteko; Proiektu eta obretan (300.000 €), Herrerako **Puntu kritiko** bat moldatzeko, eta 200.000 € Miserikordia kaleko puntu kritikoa hobetzeko. Eta horiei gehitu behar zaie Next Generation funtsen bidez **iraupen luzeko zaintza** programara bideratuko den inbertsioa, 159.559 €-koa.

AURREKONTU PROGRAMAK	2023	
	GUZTIRA	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	24.086.566,00	34,16%
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	2.542.423,00	3,61%
Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua	495.000,00	0,70%
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	65.000,00	0,09%
Mugikortasun bertikala	565.000,00	0,80%
Hiri mugikortasuna	1.417.423,00	2,01%
Etxebizitza et Hirigintza	16.688.629,00	23,67%
Hirigintza	8.774.229,00	12,44%
Donostiako etxebizitza enpresa erakunde publikoa	6.364.400,00	9,03%
Bide publikoak	650.000,00	0,92%
Zolaketa eta asfaltatzea	900.000,00	1,28%
Komunitate-ongizatea	3.695.514,00	5,24%
Saneamendua	1.196.602,00	1,70%
Ura	600.000,00	0,85%
Hiriko hondakin solidoen bilketa	221.185,00	0,31%
Bide eta etxaurren garbiketa	1.627.727,00	2,31%
Polloe	50.000,00	0,07%
Ingurumena	1.160.000,00	1,65%
Parke eta lorategiak	910.000,00	1,29%
Hondartzak	250.000,00	0,35%
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	2.250.000,00	3,19%
Hezkuntza	400.000,00	0,57%
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	400.000,00	0,57%
Kultura	600.000,00	0,85%
Donostia Kultura	600.000,00	0,85%
Kirola	1.250.000,00	1,77%
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	750.000,00	1,06%
Kirol instalakuntzak	500.000,00	0,71%
JARDUKETA EKONOMIKOAK	34.684.681,00	49,19%
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	10.556.768,00	14,97%
Donostia Turismo	482.000,00	0,68%
Ekonomi-garapena	2.445.560,00	3,47%
Donostiako Sustapena, S.A	7.629.208,00	10,82%
Garraio publikoa	19.161.071,00	27,17%
Garraioaren arloko administrazio orokorra	1.973,00	0,00%
Dbus	19.159.098,00	27,17%
Azpiegiturak	4.966.842,00	7,04%
Proiektu eta obrak	4.966.842,00	7,04%
JARDUKETA OROKORRAK	9.493.525,00	13,46%
Gobernu organoak	1.200.000,00	1,70%
Gobernu organoak	1.200.000,00	1,70%
Zerbitzu orokorrak	4.897.406,00	6,95%
Eraikinak	100.000,00	0,14%
Informatika (Udala)	1.500.000,00	2,13%
Informatika	780.640,00	1,11%
Ekialdeko distritua	458.383,00	0,65%
Bare zerbitzu orokorrak	100.000,00	0,14%
Herritarren parte hartzea	1.958.383,00	2,78%
Finantza eta zerga administrazioa	3.396.119,00	4,82%
Kudeaketa ekonomikoa	523.541,00	0,74%
Turismo-sektorearen jasangarritasuna eta modernizazioa	1.216.000,00	1,72%
Merkataritza jarduera turismo eremuetan	235.406,00	0,33%
Iraunpen luzeko zaintzak	159.559,00	0,23%
Emiso txikiko eremuak eta hiri garraioaren eraldaketa digitala eta iraunkorra	1.261.613,00	1,79%
GUZTIRA	70.514.772,00	100,00%

5. GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZI HANDIENA DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA ETA GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA

Txosten honetako 3. kapituluari jada aurreratu dugunez, aurten **handitu egin da aztertu beharreko programa kopurua**, lau programa berri sartu baitira: Adineko pertsonentzako egoitzak, Osasun sustapena eta Osasun publikoa eta animalien ongizatea, zuzeneko eragina baitute herritarren artean, eta Euskara, arloak berak eskatuta, bere aurrekontu zuzkiduraren azterketa prozesuan genero ikuspegitik parte hartzeko asmoz. Beraz, 2023an **guztira 44 programa** aztertu beharko dira.

Hortaz, **aurrekontu programen guztizkoaren % 41** aztertuko da, hau da, **udal aurrekontu osoaren % 65,54**. Horrek esan nahi du aurrekontu osoaren azterketa ehuneko 3,62 puntu igoko dela 2022. urtearekin alderatuta.

Programa horien **zenbateko globala + % 15,08an igo da 2022koarekin alderatuta**, badira aurrekontu zuzkidura emendatu duten programak eta badira apaldu dutenak, jarraian adierazten den bezala:

- **Programa horietatik 33k** 2022ko aurrekontuetan baino aurrekontu handiagoa dute, udal aurrekontu osoaren % 62,16 hartzen dute. Horietako **16 programatan, 2023rako aurrekontu globalaren igoeraren ehunekoa (+ % 8,73)** baino handiagoa da aurrekontuaren igoera, eta 16 programa horiek aurrekontu osoaren % 38,12 hartzen dute.
- **11 programak**, aurrekontu osoaren % 5,66 hartzen dutenak, **apaldu** dute beren aurrekontu zuzkidura. Horien artean dago **Berdintasun programa, -133.456 €-an apaltzen dena (- % 11,84)**.

Hurrengo orrialdeetan aztertutako programak zehazten dira, eta taula batean jasotzen dira programen banaketa, ondoko sailkapenaren arabera:

- Udal aurrekontua baino igoera handiagoa (+ % 8,73)
- Udal aurrekontua baino igoera txikiagoa.
- Jaitsiera

Ondoren, **programa bakoitzaren azterketa zehatza** aurkeztu aurretik (*Aurrekontu eboluzioa, gastu eraldatzailea eta gomendioak*), **gastu eraldatzaile globalaren eboluzioaren laburpen** atal bat sartuko dugu.

AZTERTUTAKO AURREKONTU PROGRAMAK	2022		2023		ALDEA	
	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%	GUZTIRA €	%
Udaltzaingoa	24.239.547,00	%9,21	25.899.781,00	%8,55	1.660.234,00	%6,85
Mugikortasun bertikala	935.123,00	%0,36	565.000,00	%0,19	-370.123,00	-%39,58
Hiri mugikortasuna	10.389.997,00	%3,95	10.513.267,00	%3,47	123.270,00	%1,19
Hirigintza	9.155.424,00	%3,48	13.462.781,00	%4,45	4.307.357,00	%47,05
Donostiako etxegintza enpresa erakunde publikoa	15.819.000,00	%6,01	18.532.400,00	%6,12	2.713.400,00	%17,15
Bide publikoak	4.226.709,00	%1,61	2.585.948,00	%0,85	-1.640.761,00	-%38,82
Herri-argiteria	4.249.317,00	%1,62	5.924.251,00	%1,96	1.674.934,00	%39,42
Parke eta lorategiak	7.857.158,00	%2,99	8.282.161,00	%2,74	425.003,00	%5,41
Hondartzak	3.101.096,00	%1,18	3.465.048,00	%1,14	363.952,00	%11,74
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.632.680,00	%1,76	4.873.323,00	%1,61	240.643,00	%5,19
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	842.984,00	%0,32	807.328,00	%0,27	-35.656,00	-%4,23
Lankidetzeta eta garapenarako hezkuntza	1.954.276,00	%0,74	2.164.537,00	%0,71	210.261,00	%10,76
Donostia Lagunkoia	98.000,00	%0,04	99.470,00	%0,03	1.470,00	%1,50
Apartamentu tutelatuak	1.917.247,00	%0,73	2.111.671,00	%0,70	194.424,00	%10,14
Gizarte abegi etxea	1.378.956,00	%0,52	1.420.362,00	%0,47	41.406,00	%3,00
Gizarteratzea	5.105.073,00	%1,94	4.403.978,00	%1,45	-701.095,00	-%13,73
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	3.165.376,00	%1,20	3.425.142,00	%1,13	259.766,00	%8,21
Adineko pertsonen sustapena	491.283,00	%0,19	671.469,00	%0,22	180.186,00	%36,68
Zaharren egoitzak	918.755,00	%0,35	1.089.373,00	%0,36	170.618,00	%18,57
Etkez etxeko laguntza	9.214.984,00	%3,50	10.040.717,00	%3,32	825.733,00	%8,96
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.693.355,00	%1,02	3.250.626,00	%1,07	557.271,00	%20,69
Berdintasuna	1.127.103,00	%0,43	993.647,00	%0,33	-133.456,00	-%11,84
Osasun sustapena	191.210,00	%0,07	199.069,00	%0,07	7.859,00	%4,11
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	962.812,00	%0,37	995.088,00	%0,33	32.276,00	%3,35
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.459.907,00	%2,84	8.157.856,00	%2,69	697.949,00	%9,36
Udalaren musika eta dantza eskola	5.068.909,00	%1,93	5.368.419,00	%1,77	299.510,00	%5,91
Heziketarako programak	267.716,00	%0,10	271.174,00	%0,09	3.458,00	%1,29
Giza eskubideak	824.380,00	%0,31	605.583,00	%0,20	-218.797,00	-%26,54
Kultur aniztasuna	401.081,00	%0,15	425.835,00	%0,14	24.754,00	%6,17
Donostia Kultura	30.634.202,00	%11,64	31.697.617,00	%10,47	1.063.415,00	%3,47
Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia)	159.738,00	%0,06	171.686,00	%0,06	11.948,00	%7,48
Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak)	726.474,00	%0,28	690.995,00	%0,23	-35.479,00	-%4,88
Euskara	2.987.961,00	%1,14	3.072.872,00	%1,01	84.911,00	%2,84
Zahar etxeak	1.334.071,00	%0,51	1.350.555,00	%0,45	16.484,00	%1,24
Gazteria	2.388.604,00	%0,91	2.458.610,00	%0,81	70.006,00	%2,93
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola)	4.558.149,00	%1,73	3.851.965,00	%1,27	-706.184,00	-%15,49
Donostia Kirola (kirol ekintzak)	3.030.079,00	%1,15	3.304.904,00	%1,09	274.825,00	%9,07
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	11.305.522,00	%4,30	12.456.167,00	%4,11	1.150.645,00	%10,18
Donostia Turismo	3.827.986,00	%1,46	4.446.023,00	%1,47	618.037,00	%16,15
Donostiako Sustapena, S.A.	15.449.610,00	%5,87	22.745.876,00	%7,51	7.296.266,00	%47,23
Dbus	45.647.713,00	%17,35	64.254.021,00	%21,22	18.606.308,00	%40,76
Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.575.047,00	%0,60	1.432.213,00	%0,47	-142.834,00	-%9,07
Proiektu eta obrak	7.844.831,00	%2,98	7.472.722,00	%2,47	-372.109,00	-%4,74
Herriarren parte hartzea	2.912.684,00	%1,11	2.739.293,00	%0,90	-173.391,00	-%5,95
GUZTIRA	263.072.129,00	%100,00	302.750.823,00	%100,00	39.678.694,00	%15,08
AURREKONTU OSOAREN GAINEKO %	%61,92		%65,54			

Udal aurrekontua baino IGOERA handiagoa	Udal aurrekontua baino IGOERA txikiagoa
- Hirigintza (%+47,05) - Etxebizitza (%+17,15) - Argiteria publikoa (%+39,42) - Hondartzak (%+11,74) - Lankidetzak eta garapenarako hezkuntza (%+10,76) - Apartamentu tutelatuen (%+10,14) - Adineko pertsonen sustapena (%+36,68) - Zaharren egoitzak (%+18,57) - Etxez etxeko laguntza (%+8,96) - Gizarte larrialdietarako laguntza (%+20,69) - Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua (%+9,36) - Donostia Kirola (%+9,07) - Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola) (%+10,18) - Donostia Turismo (%+16,15) - Donostiako Sustapena, S.A. (%+47,23) - Dbus (%+40,76)	- Udaltzaingoa (%+6,85) - Hiri mugikortasuna (%+1,19) - Parke eta lorategiak (%+5,41) - Gizarte zerbitzuen zentroak (%+5,19) - Donostia Lagunkoia (%+1,50) - Gizarte abegi etxea (%+3,00) - Adin txikien prebentzioa eta familia (%+8,21) - Osasun sustapena (%+4,11) - Osasun publikoa eta animalien ongizatea (%+3,35%) - Udalaren musika eta dantza eskola (%+5,91) - Heziketarako programak (%+1,29) - Kultura aniztasuna (%+6,17) - Donostia Kultura (%+3,47) - Udalaren musika eta dantza eskola (liburutegia) (%+7,48) - Euskara (%+2,84) - Zahar etxeak (%+1,24) - Gazteria (%+2,93)
JAITSIERA	
- Mugikortasun bertikala (%-39,58) - Bide publikoak (%-38,82) - Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa (%-4,23) - Gizarteratzea (%-13,73) - Berdintasuna (%-11,84) - Giza eskubideak (%-26,54) - Udalaren musika eta dantza eskola (Txistulariak) (%-4,88) - Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) (%-15,49) - Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa (%-9,07) - Proiektu eta obrak (%-4,74) - Herritarren parte hartzea (%-5,95)	

Oharra: Ehunekoak erreferentzia egiten dion administrazio-unitatearen guztizko gastuaren igoerari, jaitsierari edo mantentzeari buruzkoak dira.

GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA ETA LABURPENA

Donostiako Udaleko "Aurrekontuen azterketa txostenetan" 2017tik behin eta berriz jaso diren datuetatik bat izan da gastu eraldatzaileak aurrekontu osoan duen ehunekoa eta zenbatekoa. **Genero desberdintasuna bermatzen den oinarritzko egiturak hausten eta desberdintasunak eragiten eta sorrarazten dituzten mekanismoak desegiten** laguntzen duen gastua da **Gastu eraldatzailea**.

Ondoko taulan islatzen da 2017ko ekitalditik datu hauek izan duten eboluzioa (ez dira aurreko txostenetako datuak jaso ez dituztelako alderatzeko moduko datuak eskaintzen):

- Berdintasun programaren aurrekontuaren zenbatekoa.
- Berdintasun programaren aurrekontuaren %-koa Udalaren aurrekontu osoaren gainean.
- Berdintasun arloko partidak dituzten sailen kopurua (gastu eraldatzailea).
- Gastu eraldatzailearen urteko zenbatekoa.
- Gastu eraldatzailearen %-koa Udalaren aurrekontu osoaren gainean.

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Berdintasun Programaren Aurrekontua	747.661 €	898.190 €	966.041 €	1.004.374 €	1.087.353 €	1.127.103 €	993.647 €
Berdintasunaren Aurrekontua (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean	%0,18	%0,20	%0,21	%0,23	%0,27	%0,27	%0,22
Berdintasun arloko partidak dituzten sail kopurua	13	13	13	14	13	13	20
Gastu eraldatzailearen zenbatekoa	1.590.538 €	1.839.312 €	2.002.711 €	2.220.903 €	2.453.343 €	2.808.568 €	3.581.687 €
Gastu eraldatzailea (%) Udalaren aurrekontu osoaren gainean	%0,38	%0,41	%0,43	%0,49	%0,61	%0,66	%0,78

Ekitaldi honetan badira nabarmendu beharreko hainbat datu on:


- Alde batetik, zeharkako neurriak txertatzeko prest dauden administrazio unitateen igoera, guztira 20 baitira, prozesu hau abiarazi zenetik kopuru handiena delarik.
- Gastu eraldatzaile globalaren igoera, aurreko datuaren eta dirulaguntza lerro jakin batzuen azterketa sakonagoaren ondorio dena.
- Eta azkenik, aurreko guztiaren ondorioz, gastu eraldatzaileak aurrekontu globalen gainean hartzen duen ehunekoa (% 0,78), aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzeke prozesua abiarazi zenetik ehuneko handiena delarik.

Halere, Berdintasun programari esleitutako aurrekontuari dagokionez, apaldu egin da bai zenbatekoan bai aurrekontu globalean hartzen duen ehunekoan (% 0,22). Hala ere, horren arrazoia da puntu kritikoetako inbertsioak Proiektu eta Obren eta Hiri Mantentze eta Zerbitzuen programetara transferitu direla.



Hori guztia kontuan izanik, gure ustez igo egin behar da **Berdintasun programaren aurrekontu zuzkidura**, eta aldi berean **gastu eraldatzaileak** udal aurrekontu osoan duen **ehunekoa handitzen jarraitu behar da**, urtero baita % 1etik beherakoa. Bestalde, lanean jarraitzea gomendatzen dugu berdintasunerako berariazko partidak dituzten administrazio unitateen kopuruak gora egiten jarrai dezan.

Jarraian irudikatzen dira **Berdintasun** programaren eta **Gastu eraldatzailea** programaren **aurrekontu zuzkiduraren eboluzioa** azaltzen duten grafikoak.

BERDINTASUN PROGRAMAREN AURREKONTUAREN EBOLUZIOA



GASTU ERALDATZAILEAREN EBOLUZIOA



Azkenik, **2023. urterako aurrekontuz hornituriko gastu eraldatzailearen** laburpena aurkezten da, **aurrekontu osoaren gainean % 0,78** hartzen duena:

UDAL AURREKONTUEN GASTU ERALDATZAILEA 2023						
Unitatea	1. kapitulua	2. kapitulua	4. kapitulua	6. kapitulua	GUZTIRA	Aurrekontua guztira (%)
Berdintasuna	469.569,00	309.878,00	214.200,00	0,00	993.647,00	0,22%
Udaltzaingoa		3.000,00			3.000,00	
Hiri mugikortsuna		1.200,00			1.200,00	
Hirigintza				15.000,00	15.000,00	
Lankidetzeta eta Garapenarako hezkuntza			993.626,00		993.626,00	
Gizarte Ekintza	191.161,59	16.000,00			207.161,59	
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua				100.000,00	100.000,00	
Musika eta Dantza Eskola		5.100,00			5.100,00	
Heziketarako programak		63.240,00	6.833,00		70.073,00	
Giza eskubideak		29.000,00			29.000,00	
Kultur aniztasuna		8.944,00			8.944,00	
Donostia Kultura		105.800,00			105.800,00	
Euskara		5.600,00			5.600,00	
Gazteria		35.000,00			35.000,00	
Donostia Kirola		21.735,00	146.000,00		167.735,00	
Donostia Turismo		12.500,00			12.500,00	
Donostia Sustapena, S.A.		10.500,00	215.300,00		225.800,00	
Dbus		50.000,00			50.000,00	
Hiri mantentze eta zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
Proiektu eta obrak				500.000,00	500.000,00	
Herritarren parte hartzea		10.000,00			10.000,00	
Udal langileen berdintasuna arloko prestakuntza	17.500,00				17.500,00	
TOTAL	678.230,59	712.497,00	1.575.959,00	615.000,00	3.581.687	0,78%

Hurrengo orrialdeetan adierazten dira xehetasunak, programaz programa.

5.1. OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK

9 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Udaltzaingoa.
- Mugikortasun bertikala.
- Hiri mugikortasuna.
- Hirigintza.
- Donostiako Etxegintza erakunde publikoa.
- Bide publikoak.
- Herri argiteria.
- Parke eta lorategiak.
- Hondartzak.

5.1.1. UDALTZAINGOA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Udaltzaingoa programa *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **25.899.781,00 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 5,61** hartzen du. 2022an 24.239.547 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 5,71. Beraz, **1.660.234 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 6,85).

UDALTZAINGOA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	22.641.860,00	24.297.213,00	1.655.353,00	%7,31
2. kapitulua	1.504.687,00	1.602.568,00	97.881,00	%6,51
6. kapitulua	93.000,00	0,00	-93.000,00	-%100,00
TOTAL	24.239.547,00	25.899.781,00	1.660.234,00	%6,85

1. kapitulua da, pertsonal gastuak, programan proportzio handiena hartzen duen gastua. **Genero ikuspegitik horixe da kapitulu interesgarriena**, izan ere, programa horretan ari diren langileek **ematen diete arreta eraso matxistak jasaten dituztenei**. Igoera horren arrazoiak Udalean onartutako soldata igoera bera, Gizarte Segurantzaren kostuaren igoera eta kontratuen arabera antzintasunean izandako aldaketak dira. Era berean, kontuan izanik 2022an hasiera batean aurreikusi baino langile gehiago kontratatu direla, zenbateko handiagoa aurreikusi da 2023rako.

2. kapituluari dagokionez, zenbait emendioren emaitza da igoera, horien artean batez ere energia elektrikoan eta garbiketa lanetan dagoen gastua nabarmentzen delarik.

Azkenik, 6. kapituluari dagokionez, 2023an ez da inbertitzeko zenbatekorik aurreikusi.

• **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2023rako, **eutsi egiten** zaio programa honetako **gastu eraldatzailerari 3.000 €-ko zenbatekoarekin**, Udaltzainak indarkeria matxistaren arloan eman beharreko arretari buruz prestatzeko.

UDALTZAINGOA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	3.000,00	3.000,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	3.000,00	3.000,00	0,00	%0,00

• **GOMENDIOAK**

- ✓ Indarkeria matxisten kasuei arreta emateko agenteen **talde espezializatua** indartzen jarraitzea, prestakuntza baliabideekin nahiz baliabide ekonomikoekin.
- ✓ Indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta adingabeen **beharrizanei arreta emateko gune egoki** bat prestatzea.
- ✓ Harreman operatiboa izatea berdintasun arloaren eta arreta espezializatua ematen duen taldearen artean.

5.1.2. MUGIKORTASUN BERTIKALA

• **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Mugikortasun Bertikala programa *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **565. 000 €-ko** zuzkidura du, hau da, udal aurrekontuen % 0,12 hartzen du. 2022an 935. 123,00 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,22. Beraz, 2023an **-370. 123,00 €-ko** jaitsiera izan du (**- % 39,58**). 2022an, programa hori + % 61,23an igo zen aurreko urtearekin alderatuta.

MUGIKORTASUN BERTIKALA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
6. kapitulua	935.123,00	565.000,00	-370.123,00	-%39,58
TOTAL	935.123,00	565.000,00	-370.123,00	-%39,58

Zenbateko osoa bideratzen da 6. kapitulura, *601.01 Igogailuak* partidara, hiri barnean irisgarritasuna hobetzea ahalbidetzen duten igogailuak eraikitzeke.

• **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

• GOMENDIOAK

- ✓ Programa honetako **inbertsioak** garrantzitsuak dira kontziliazioa eta erantzukidetasuna hobetzen laguntzen dutelako (mugikortasuna eta irisgarritasuna). Horrexegatik gomendatzen dugu **hautapen irizpideetan** genero irizpideak txertatzea ikuspegi intersektional batez: sexua, adina, errenta, puntu kritikoak, etab.
- ✓ Udala oro har sustatzen ari den bezala, egin beharreko **inbertsioen diseinua eta egikaritzea** kontratatzeko pleguetan **genero klausulak txertatzen direla ziurtatu behar da**.

5.1.3. HIRI MUGIKORTASUNA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hiri Mugikortasuna programa *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **10. 513. 267,00 €**-ko zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 2,28** hartzen du. 2022an 10. 389. 156,00 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 2,45. Beraz, **123. 270,00 €-ko igoera** izan du programa honek **(+ % 1,19)**.

HIRI MUGIKORTASUNA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	6.235.828,00	6.651.972,00	416.144,00	%6,67
2. kapitulua	2.321.773,00	2.434.632,00	112.859,00	%4,86
4. kapitulua	9.240,00	9.240,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	1.823.156,00	1.417.423,00	-405.733,00	-%22,25
GUZTIRA	10.389.997,00	10.513.267,00	123.270,00	%1,19

4. kapitulua da 2022ko zenbateko berberari eusten dion bakarra. Gainerako kapituluetan aldaketak izan dira, igo egin dira 1. kapitulua (+ % 6,67) eta 2.a (+ % 4,86), eta jaitsi egin da 6. kapitulua (- % 22,25).

1. kapituluko igoera, soldata igoera orokorraren eta 2023rako mugikortasun agente kopuru handiagoa kontratatzeko aurreikuspenaren ondorioa da.

2. kapituluko igoera batez ere instalazio semaforikoak egoki Mantentzeko kontratuaren ondorioa da.

Hauexek dira programa honetan 2023. urterako **aurreikusitako inbertsioak**:

HIRI MUGIKORTASUNA		1.417.423,00
601.04	Marrutxipiko lotura-proiektua GI-20 errepidean (Donostiako saihsbidea)	1.075.423,00
623.03	Instalazio semaforikoak	342.000,00

• **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2023. urterako **guztira 1.200 €-ko gastu eraldatzalea** aurreikusi da programa honetan. Hona hemen gastu hori bereizita:

- 1.000 € 2. kapituluaren trafiko agenteak "Autodefentsa feminista" arloan prestatzeko eta agenteei zuzendutako "Maskulinitate berriak" arloan prestatzeko.
- 200 € "Emakumea eta Bizikleta" gaiari buruzko jardunaldi monografiko bat egiteko.

Betalde, arloak nabarmendu egiten du Mugikortasun Aktiboaren Behatokiaren barruan datuak bereizi egin direla, Donostiako hirian emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen mugikortasun desberdintasunak identifikatzeko oinarritzat hartzeko.

• **GOMENDIOAK**

- ✓ Programa honetako inbertsioak eta/edo jarduketak egokitzeko eta hautatzeko, "**Donostian emakumeen eta gizonen mugikortasunari**" buruzko diagnostiko eta/edo azterlan bat egitea gomendatzen dugu.
- ✓ Inbertsioak eta/edo jarduerak hautatzean, kontuan hartu behar dira hiriko **puntu kritikoak** edo gune ez seguruak.

5.1.4. HIRIGINTZA

• **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hirigintza programa *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **13. 462. 781,00 €**-ko zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen** % 2,91 hartzen du. 2022an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 9.155.424,00 €-koa, aurrekontu osoaren % 2,16. Beraz, **+ 4.307.357,00 €-ko igoera** izan du programa honek **(+ % 47,05)**.

HIRIGINTZA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.273.543,00	4.402.251,00	128.708,00	%3,01
2. kapitulua	269.133,00	286.301,00	17.168,00	%6,38
6. kapitulua	3.012.476,00	4.915.778,00	1.903.302,00	%63,18
7. kapitulua	1.600.272,00	3.858.451,00	2.258.179,00	%141,11
GUZTIRA	9.155.424,00	13.462.781,00	4.307.357,00	%47,05

Zuzkidura aldea batez ere **6. kapituluko igoeran** oinarritzen da (**+ % 63,18**), izan ere, gora egin du inbertsioen zenbateko globalak 2023. urterako. Eta 7. kapitulua ere nabarmen igo da (**+ % 141,11**) era berean nabarmen emendatu direlako obra desberdinetako Kontzertazio Batzordeen ekarpenak: Aldakoenena, Apostolado, Illarra eta El Infierno.

6. kapituluko partidetan zehaztu egiten da zenbateko horren xedea, eta genero ikuspegitik nabarmendu egiten da **plangintzan genero inpaktuaren ebaluazioa** egiteko aurreikusitako zenbatekoa (**15.000 €**). Beste bi partidak Hiri Lorategiko Urbanizaziora eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra bideratzen dira, **biek txertatu baitezakete beren diseinuan genero ikuspegia**.

HIRIGINTZA	4.915.778,00
601.02 Hiri Lorategia Urbanizazioa	4.315.778,00
643.01 Hiri-antolamenduko plan orokorra	585.000,00
643.02 Genero inpaktua plangintzan	15.000,00

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Jada azaldu dugun bezala, 2023rako gastu eraldatzailea **6. kapitulura** mugatzen da, **643.02 Genero inpaktua plangintzan** partidara, eta **15.000 €** bereizten dira horretarako. **2022ko ekitaldiarekin alderatuta**, aldatu egin da gastua esleitzeko irizpidea (6. kapitulura aldatu da), baita zenbatekoa ere (**-10.000 €, - % 40**).

HIRIGINTZA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	25.000,00		-25.000,00	-%100,00
6. kapitulua	0,00	15.000,00	15.000,00	
GUZTIRA	25.000,00	15.000,00	-10.000,00	-%40,00

• GOMENDIOAK

- ✓ Arloak sustatutako proiektuetan eta inbertsioetan **genero ikuspegia txertatzeko prestakuntza politika egitea**. Eta inpaktuei buruzko txostenen erredakzioa sustatzea eta sistematizatzea.
- ✓ Donostiako **Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO)** berriaren berrikuspenean eta erredakzioan **genero ikuspegia txertatzen** dela ziurtatzea.

5.1.5. DONOSTIAKO ETXEGINTZA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostiako Etxegintza enpresa publikoa *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan sartzen da. 2023ko aurrekontuan **+ % 17,15 igo da**, guztira **18. 532. 400 €**-ko zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 4,01** hartzen du. 2022an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 15.819.000 €-koa, aurrekontu osoaren % 3,72.

ETXEGINTZA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.965.000,00	2.074.000,00	109.000,00	%5,55
2. kapitulua	3.526.000,00	3.798.000,00	272.000,00	%7,71
3. kapitulua	613.000,00	549.000,00	-64.000,00	-%10,44
6. kapitulua	4.491.000,00	6.364.400,00	1.873.400,00	%41,71
9. kapitulua	5.224.000,00	5.747.000,00	523.000,00	%10,01
GUZTIRA	15.819.000,00	18.532.400,00	2.713.400,00	%17,15

Udalak 2.965.000 €-ko ekarpena egingo du 2023an, 2.915.000 € gastu arruntean eta 50.000 € kapital gastuan. 2022an ekarpen handiagoa egin zuen, 5.925.000 €-koa, 2.790.000 € gastu arruntean eta 3.135.000 € kapital gastuan.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Ez da gastu eraldatzailerako **berriazko partidarik identifikatu**.

Eutsi egiten zaie Gizarte Zerbitzuekin adostutako irizpideei. Irizpide horiek kolektibo jakin batzuei zuzenduta daude, eta ekintza positiboko kupoak ezartzen zaizkie:

- Soilik ama edo aita duten familiak, eta seme-alabak kargura dituzten dibortziatuak.
- Mugikortasun mugatua.
- Desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala.
- Genero indarkeria.
- Familia ugariak, familia kargak.

- Gizarte eta egoitza bazterketa egiaztatua.
- 35 urtetik gorako pertsonak (emantzipazioa ahalbidetzea).

Behin ekintza kupoak osatu ondoren, puntuak esleitzen dira bizikidetza unitatearen ezaugarri sozioekonomikoen arabera; bereziki kontuan hartzen dira diru-sarrerak eta bizikidetza unitatea osatzen duten kideen kopurua.

Ekintza positiboko kupoez gain, Etxegintzak egoitza baliabideak lagatzen dizkie gizarte erakundeei eta Gizarte Zerbitzuei gizarte larrialdi egoera berezian daudenei erantzun diezaieten. Ugari dira egoera horretan dauden etxebizitzak. Era berean, Gizarte Ekintzak programa horiei lotutako etxebizitza jakin batzuetarako erabiltzaileak izendatzen ditu. **(Etxebizitzak bazterketa arriskuan dauden pertsonen lagatzeko programa).**

Bestalde, adinekoentzako edo 35 urtetik beherako gazteentzako zuzkidura bizitokiak ditu Etxegintzak, premia berezia duten kolektiboak baitira **(Zuzkidura bizitokiaren programa).**

• GOMENDIOAK

- ✓ Eutsi egiten diogu 2022ko gomendioari, hau da, **berdintasun departamentuarekin elkarlanean**, etxebizitza programaren onuradunen **datuak bereizirik biltzen eta aztertzen** jarraitu behar da.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak arautzen dituen ekainaren 28ko **80/2022 Dekretu berriaren aplikazioaren eragina baloratu** behar da.

5.1.6. BIDE PUBLIKOAK

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Bide Publikoak aurrekontu programa *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan sartzen da. Programa honen aurrekontu zuzkidura **jaitsi egin da 2022koaren aldean (- % 38,82)**, guztira **2.585.948 €**-ko aurrekontua du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,56** hartzen du. 2022an 4.226.709 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,99.

BIDE PUBLIKOAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	669.989,00	716.781,00	46.792,00	%6,98
2. kapitulua	1.116.720,00	1.219.167,00	102.447,00	%9,17
6. kapitulua	2.440.000,00	650.000,00	-1.790.000,00	-%73,36
GUZTIRA	4.226.709,00	2.585.948,00	-1.640.761,00	-%38,82

1. kapituluko igoera (+ % 6,98), beste programa batzuetan bezala, soldataren igoeraren eta eratorritako kontzeptuen igoeraren ondorioa da, baita antzintasunean eta beste arlo batzuetan izandako aldaketen ondorioa ere. **2. kapituluari** dagokionez (+ % 9,17), batez ere banku publikoei eusteko partidan izandako igoeran oinarritzen da emendio hori.

6. kapituluari dagokionez, - % 73,36ko **jaitiera** du. Zehazki honako partida hauetara mugatzen dira inbertsioak:

BIDE PUBLIKOAK		650.000,00
601.02	Haur parkeak (berrikuntzak)	300.000,00
601.03	Irisgarritasuna eta espazioa publikoak	300.000,00
623.01	Papelerak	50.000,00

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Ez da gastu eraldatzailerako **berariazko partidarik identifikatu**.

Genero ikuspegitik, egin beharreko inbertsioen xehetasun handiagorik izan gabe, gure ustez garrantzitsuak dira **601.03 Irisgarritasuna eta espazio publikoak** (puntu kritikoak) eta **601.02 Haur parkeak** partidak, diseinuan aldaketak egiteko bideratzen badira.

● GOMENDIOAK

- ✓ Eutsi egiten zaio **haur parkeetako** inbertsioen **diseinuan genero ikuspegia txertatzeko** gomendioari.
- ✓ Udala oro har sustatzen ari den bezala, egin beharreko **inbertsioekin lotutako** kontratazio pleguetan **genero klausulak txertatzen direla** ziurtatu behar da.

5.1.7. HERRI ARGITERIA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Herri argiteria aurrekontu programa *Komunitate Ongizatea* gastu politikan sartzen da. 2023ko aurrekontuan **5.924.251 €**-ko zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen** % 1,28 hartzen du. 2022an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 4.249.317 €-koa, aurrekontu osoaren % 1,00. Beraz, **+1.674.934 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 39,42).

HERRI ARGITERIA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.861,00	51,00	-3.810,00	-%98,68
2. kapitulua	3.813.456,00	5.924.200,00	2.110.744,00	%55,35
6. kapitulua	432.000,00	0,00	-432.000,00	-%100,00
GUZTIRA	4.249.317,00	5.924.251,00	1.674.934,00	%39,42

2. kapituluko igoera esanguratsua (+ % 55,35) batez ere Energia Elektrikoaren partidaren igoeraren ondorioa da, azken hori % 98,12an igo baita. Eta horri herri argiteria egoki mantentzeko partidaren (kontratu berria) + 363.102 € gehitu behar zaizkio (+ % 19,03).

1. kapitulua hutsaren hurrengo da 2022an, **barne mailan**, zuzendaritza bereko programetan zerbitzuen arteko balio aniztasuna bilatzeko xedean gauzatutako **aldaketaren** ondorioz. Zuzendaritza horretako langileak, oro har, berberak dira, baina modu desberdinean daude egotzita programen artean (**Bide Publikoak**).

Azkenik, 2023an ez da **6. kapitulurako** zuzkidurarik bereizi.

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Ez da gastu eraldatzailerako berariazko partidarik identifikatu.

● GOMENDIOAK

- ✓ Kontuan hartu behar da genero ikuspegia efizientzia energetikoa hobetzeko jarduketetan. Ez da **segurtasunik gabeko egoerarik** sortu behar argiztapen txikiagoa dela eta, egoera horrek oro har zuzenago eragiten baitie emakumeei.

5.1.8. PARKE ETA LORATEGIAK

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Parke eta lorategiak aurrekontu programa *Ingurumena* gastu politikan sartzen da. 2023ko aurrekontuan **8.282.161 €**-ko zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 1,79** hartzen du. 2022an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 7.857.158 €-koa, aurrekontu osoaren % 1,85. Beraz, **425.003 €**-ko igoera izan du programa honek (+ % 5,41).

PARKE ETA LORATEGIA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	625.671,00	731.012,00	105.341,00	%16,84
2. kapitulua	5.976.487,00	6.641.149,00	664.662,00	%11,12
6. kapitulua	1.255.000,00	910.000,00	-345.000,00	-%27,49
GUZTIRA	7.857.158,00	8.282.161,00	425.003,00	%5,41

1. kapituluko igoera, beste programa batzuetan bezala, soldataren igoeraren eta eratorritako kontzeptuen igoeraren ondorioa da, baita antzinatasunean eta beste arlo batzuetan izandako aldaketen ondorioa ere.

2. kapituluari dagokionez, **batez ere** zuhaitzak eta landareak erosteko partidaren eta zuhaitzen azterketa egiteko partida berri baten ondorioa da **igoera**.

6. kapituluak, 2022koarekin alderatuta, - % 27,49ko jaitsiera izan du. Zehazki honako partida hauetara mugatzen dira inbertsioak:

PARKE ETA LORATEGIA		910.000,00
601.01	Jarduerak zuhaitzetan, txorkoetan eta berdeguneetan	710.000,00
623.02	Ureztatze sisteman hobekuntzak	200.000,00

601.01 Jarduerak zuhaitzetan, txorkoetan eta berdeguneetan partida **garrantzi handikoa da genero ikuspegitik, hiriaren erabilera komunitarioa** ahalbidetzen baitute jardura horiek. Ez dago jardura horien xehetasun espezifikorik.

- PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako **berariazko partidarik** identifikatu.

- GOMENDIOAK**

- ✓ Gure ustez garrantzitsua da **berdeguneak antolatzekeo planetan**, xendrak hobetzeko planetan, **genero ikuspegia txertatzea**, plan horiek erabilera komunitarioa eta segurtasuna ahalbidetzen baitute.
- ✓ Udala oro har sustatzen ari den bezala, egin beharreko **inbertsioekin** lotutako **kontratazio pleguetan genero klausulak txertatzen direla ziurtatu behar da**.

5.1.9. HONDARTZAK

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hondartzak aurrekontu programa *Ingurumena* gastu politikan sartzen da. 2023ko aurrekontuan **3.465.048 €**-ko zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,75** hartzen du. 2022an zuzkidura txikiagoa izan zuen, 3.101.096 €-koa, aurrekontu osoaren % 0,73. Beraz, **+363.952 €-ko igoera** izan du programa honek (**+ % 11,74**).

HONDARTZAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	109.489,00	117.316,00	7.827,00	%7,15
2. kapitulua	2.879.007,00	3.097.732,00	218.725,00	%7,60
6. kapitulua	112.600,00	250.000,00	137.400,00	%122,02
GUZTIRA	3.101.096,00	3.465.048,00	363.952,00	%11,74

1. kapituluko igoera aurreko programetan adierazitako arrazoiaren ondorioa da (soldata igoera, Gizarte Segurantzaren kuoten igoera, antzinasunak eguneratzeko aldaketak, etab.). **2. kapituluko** igoerari dagokionez, batez ere aulkiak eta eguzkitakoak alokatzeko partidak, kostaldeko zerbitzuei ordaindu beharreko kanonak eta energia elektrikoak eragin dute igoera hori.

Azkenik, **6. kapituluan**, + 137.400 €-an igo da (**+ % 122,02**) 2022an zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresneriarako jaso zen partida.

HONDARTZAK	250.000,00
623.05 Zerbitzuentzako makineria, instalazioak eta tresneria	250.000,00

Ez dugu inbertsioen xedearen xehetasun espezifikorik biltzeko aukerarik izan.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Ez da gastu eraldatzailerako **berariazko partidarik** identifikatu.

• GOMENDIOAK

- ✓ Udalak sustatutako **zerbitzuaren kontratazioan genero klausulak txertatzen direla** ziurtatu behar da. Besteak beste, zerbitzuari atxikitako langileei begira **indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko prestakuntza espezifiko**a jasotzeko betebeharra lehenestea gomendatzen dugu.

5.2. GIZARTE BABESEKO ETA SUSTAPENeko JARDUERAK

14 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Berdintasuna.
- Garapenerako lankidetzak eta hezkuntza.
- Donostia Lagunkoia.

GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA

- Gizarte zerbitzuen zentroak
- Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa.
- Apartamentu tutelatuak.
- Gizarte abegi etxea.
- Gizarteratzea.
- Adin txikikoen prebentzioa eta familia.
- Adineko pertsonen sustapena.
- Adineko pertsonentzako egoitzak
- Etxez etxeko laguntza.
- Gizarte larrialdietarako laguntzak.
- Zahar etxea (programa hori atal honetan jaso dugu *gizarte ekintzaren zuzendaritzapean dagoelako. Halere, aurrekontuari dagokionez, Lehenetsuneko ondasun ekoizpena eta Kultura arloko gastu politikan sailkatzen da).*

5.2.1. BERDINTASUNA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Berdintasuna programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da. 2023ko aurrekontuan **993.647,00 €**-ko zuzkidura du, hau da, **udal aurrekontuen % 0,22** hartzen du. 2022an zuzkidura handiagoa izan zuen, 1.127.103,00 €-koa, aurrekontu osoaren % 0,27. Beraz, guztira - **133.456 €-ko jaitsiera** izan du programa honek (- % 11,84).

BERDINTASUNA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	508.200,00	469.569,00	-38.631,00	-%7,60
2. kapitulua	296.703,00	309.878,00	13.175,00	%4,44
4. kapitulua	192.200,00	214.200,00	22.000,00	%11,45
6. kapitulua	130.000,00	0,00	-130.000,00	-%100,00
GUZTIRA	1.127.103,00	993.647,00	-133.456,00	-%11,84

1. kapituluko jaitsiera funtsean Emakumeen Etxeari lanaldi osoz atxikita zegoen Berdintasun Teknikari baten erretiroaren ondorioa da. Bestalde, arloko Arduradunaren lanaldia ¼-tik lanaldi osora igaro da, baina egoera hori ez da aurrekontuetan islatzen guztizko gastua lehendik berdintasun programari esleituta zegoelako.

Egoera berbera gertatzen da **berdintasun teknikariak 5** lagunetara emendatuta (lehen 4 ziren), zuzkidura hori 2022ko aurrekontuan bereizi baitzen. Era berean, aipatzekoa da 2023an gauzatuko den **alderdi on** bat, "Gizarte Sustapena eta Hezkuntza" esparruko organigramaren aldaketari dagokionez. **Organigrama berrian berezko nortasuna duen departamentu gisa** sartu da **berdintasun arloa**. Besteak beste, horrexegatik izango du **departamentuko Arduradun bat lanaldi osoz**.

2. kapituluko zuzkidura + **13.175 €-an igo da**, eta beraz, + **% 4,44ko** igoera izan du. Ondoko aldaketen emaitza da igoera hori:

- + 22.000 €-ko igoera 226-99-01 Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak partidan.
- 3.150 € gehiago energia elektrikoari emandako partidan.
- -11.975 € gutxiago garbiketa lanen partidan.

2. kapituluko gainerako partidek 2022ko aurrekontu zuzkidura berari eusten diote.

226.99.01 Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak partidari dagokionez, partida hori 226.99 Beste gastu batzuk partidan bildutako beste partida batzuen zati da. Eta hain zuzen ere 226.99 partidak biltzen ditu 2. kapituluaren zenbateko nagusia (**2. kapituluaren guztizko zenbatekoaren % 85,12**) eta edukiak (berdintasun politikak sustatzeko jarduera nagusiak). Hauexek dira 2023rako xehetasunak:

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.99	Bestelako gastuak	263.765,00
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekimenak	102.000,00
226.99.02	Ikerketa lanak eta prestakuntza	3.000,00
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	111.265,00
226.99.05	Erantzunkidetasuna eta zaintzak lantzeko ekintzak	6.000,00
226.99.07	III. Berdintasun Plana: inplementatu eta sistematizatzea	15.000,00
226.99.08	Pobreziaren eta prekarietatearen feminizazioaren aurkako estrategia	26.500,00

4. kapituluari dagokionez, + **22.000 €-an igo da (+ % 11,45)**. Batez ere **481.02 Dirulaguntza izenduna emakumeen etxeko elkarteari** partidan islatu da igoera hori, **Emakumeen Etxeari pertsona bat lanaldi erdian atxiki** ondoren. Kapituluko horretako beste partidek eutsi egiten diote 2022ko aurrekontu zuzkidurari.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
481.01	Irabazi asmorik gabeko erakundeetarako dirulaguntzak	82.000,00
481.02	Diru-laguntza izenduna emakumeen etxeko elkarteari	68.000,00
481.03	Guraso bakarreko familien kontziliazio-kanguraje programaren aparteko dirulaguntza	64.200,00

Azkenik, 2023ko ekitaldiari begira, ez da aurrekonturik esleitu **6. kapitulurako**. 2022an Emakumeen Etxea mantentzeko partida bat izan zen (20.000 €), eta 110.000 €-ko aurrekontu bat puntu kritikoetarako. Baina aurten zuzenean esleitu zaio 500.000 €-ko aurrekontua "Proiektu eta Obrak" programari puntu kritikoak moldatzeko.

Bestalde, **nabarmendu behar dugu ez zaigula ongi iruditzen Emakumeen Etxea mantentzeko aurrekontu bat desagerrarazi izana**, izan ere, gaur egungo eraikinak, aurreko ekitaldietan adierazi genuen bezala, ez ditu Emakumeen Etxearen zerbitzurako eta jardueretarako baldintza egokiak betetzen.

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honi esleitutako zenbatekoaren guztizkoa gastu eraldatzailea da, programaren beraren jatorria eta xedea baita.

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik eratorritako dirulaguntzari dagokionez, aurreikuspenen arabera **guztira 165.460.76 €-ko dirulaguntza** jasoko da gutxi gorabehera 2023ko martxoan, 2022ko uztailaren eta 2023ko uztailaren artean hartuko diren neurriei aurre egiteko.

Berretsi egiten da Gizarte Ekintza eta Berdintasun Departamentuen gastu arrunta handitzeko gomendioa (horiek justifikatu behar dute dirulaguntza hori), zenbatekoa ebazten denean.

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea emakume askoren eta askotarikoen **topaketarako, prestakuntzarako, pentsamendurako eta ekintzarako** gune bat da, mugimendu feministaren eta Donostiako Udaleko Berdintasun Sailaren arteko kudeaketa eredu misto edo partekatu baten bidez antolatzen da.

Donostiako Udalak **2023an 265.669,57 €-ko** ekarpen ekonomikoa egingo dio Emakumeen Etxeari. 2022koarekin alderatuta, zenbatekoa - 11.422,25 €-an jaitsi da (- % 4,12).

Aldaketa jakin batzuen emaitza da jaitsiera hori. Horien artean nabarmentzekoa da 2022an obretara bideratutako aurrekontua kendu izana.

Aurreko txostenetan azaldu bezala, behar-beharrezkoa da **Emakumeen Etxerako gune berri bat, iristen erraza, instalazio egokiak izango dituen**a zerbitzuak eta jarduerak hartu ahal izateko. Eskaera hori **berretsita dago** Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko urriaren 20an onartutako **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plan**ean, bertan baitago jasota 4. proiektua-emaitza: **Emakumeen Etxe handiago, dibertsoago eta koordinatuago bat**.

DONOSTIAKO UDALAK EMAKUMEEN ETXERA EGINDAKO EKARPENA	
1. Hitzarmena Emakumeen Etxea Elkartarekin	
Espazioaren dinamizazioa arratsaldeko ordutegian	68.000,00 €
2. Langileak	
Berdintasun teknikari bat lanaldi osoan	51.177,20 €
3. Ikastaroak, ahalduztze-taldeak eta zerbitzuak	
Emakumeentzako banakako arreta psikologikoa eta taldeko psikoterapia-zerbitzua	18.753,12 €
Aholkularitza juridikoko zerbitzua	10.888,91 €
Aniztasun funtzionala duten emakumeentzako ahalduztze-taldea	9.679,03 €
Atzerriko emakumeentzako ikasketak baliozkotzeko zerbitzua	7.259,27 €
Sexu-informazio eta indarkeria matxisten prebentzio zerbitzua gazteentzat eta neska gazteen ahalduztze-taldea	15.772,35 €
Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen ahalduztze-taldea	9.679,03 €
Etxeko langileen eta kontratatzaileen aholkularitza juridikoko zerbitzua	5.444,46 €
Gizarte-aholkularitzako zerbitzua	3.000,00 €
Literatura feministako taldeak: euskaraz eta gaztelaniaz	4.800,00 €
4. Eraikuntzaren mantenua	
Gastu arrunta (telefonoa, garbiketa, fotokopia, elektrizitatea, komunitateko gastuak, konponketa txikiak)	48.000,00 €
5. Komunikazioa	
Argazkiak eta bideoak	4.102,20 €
Hileroko programak: diseinua, maketazioa eta inprenta	3.000,00 €
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	4.114,00 €
Memoria eta programak inprimatzea	2.000,00 €
GUZTIRA	265.669,57 €

• GOMENDIOAK

- ✓ **Beharrezkoak diren baliabideak ahalbidetzea Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planean finkatutako neurriak abian jartzeko.**
- ✓ Emakumeen Etxeari dagokionez, eta berdintasunerako IV. Planean jada onartutako **Emakumeen Etxe handiago, dibertsoago eta koordinatuago bat** 4. proiektua-emaitzari dagokionez:
 - Gaur egungo beharrian errealei erantzungo dien **espazio egokia** lortzea.
 - Arreta egokia emateko **beharrezkoak diren giza baliabideez hornitzea.**
- ✓ Gastu arruntean zenbatekoaren igoera aurreikustea, Estatu Itunaren dirulaguntza sartu ondoren esleitu dena (Berdintasun programaren eta Gizarte Ekintza programen artean banatu beharrekoa). Etorkizunean **indarkeria matxistak prebenitzeko eta arreta emateko gastuak indartuko** direlakoan, kanpoko dirulaguntzak gorabehera.

5.2.2. GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntza programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **2.164.537 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen** % 0,47 hartzen du. 2022an 1.954.276 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,46. Beraz, **1.210.261 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 10,76).

LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	217.742,00	229.728,00	11.986,00	%5,50
2. kapitulua	117.250,00	115.525,00	-1.725,00	-%1,47
4. kapitulua	1.619.284,00	1.819.284,00	200.000,00	%12,35
TOTAL	1.954.276,00	2.164.537,00	210.261,00	%10,76

1. kapituluko igoera aurreko programetan jada adierazitako arrazoiaren ondorioa da (soldata igoera, Gizarte Segurantzako kuotak, antzintasunen eguneraketak, etab.).

2022. urtean bezala, baina zenbateko askoz ere handiagoarekin, **4. kapituluan** gertatzen da **igoerarik** esanguratsuenak: + 200.000 € (+ % 12,35). Hona xehetasunak:

- 126.000 € gehiago lehia askeko lankidetzarako Dirulaguntza lerrorako.
- 54.000 € gehiago lehia askeko EpTS Dirulaguntzetarako.
- 20.000 € gehiago zuzeneko Dirulaguntzen partidarako.

Positibotzat jotzen dugu lankidetzarako dirulaguntzen lerroan egindako igoera, oinarrietan genero ikuspegia txertatuta zenbateko osoa hartzen baita gastu eraldatzailatzat.

Bestalde, **229.99 partidak**, **garapenerako lankidetza eta hezkuntza arloko sentsibilizazio proiektuetara** bideratzen denak, eutsi egin dio 2022ko zuzkidura berari (87.950 €). Aipatzekoa da, generoari ematen dion garrantziagatik, San Sebastian Munduen Artean programa, aurrekontuko lerro honetatik sustatu dena.

Kapitulu honetan bakarrik energia elektrikoaren partidan dago jaitsiera (- 1.725 €).

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Aurreko lerroaldean adierazi dugun bezala, positiboki nabarmentzen da 481.01 partidako aurrekontu zuzkidura + 126.000 €-an igotzea (+ % 14,52), gastu eraldatzailatzat hartzen baita bere osotasunean.

Dirulaguntza horien oinarriek **berdintasunerako klausulak** aurreikusten dituzte, eta klausula horiek ziurtatzen dute GGKEk emakumeak programen erdigunean jartzea, emakumeak baitira pobreziatik eratorritako egoerak gehien nozitzen dutenak.

Aipatzekoa da programa horrek aspaldi samarretik txertatzen dituela Giza Garapen Iraunkorrerako Lankidetzeta eta Hezkuntza Plan Gidariaren baitan genero ekitatea printzipio gidari gisa, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna zeharkako ildo gisa.

LANKIDETZA ETA GARAPENARAKO HEZKUNTZA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	867.626,00	993.626,00	126.000,00	%14,52
GUZTIRA	867.626,00	993.626,00	126.000,00	%14,52

- GOMENDIOAK**

✓ Generoa lantzen duten **printzipio gidariei eustea.**

5.2.3. DONOSTIA LAGUNKOIA

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Donostia Lagunkoia programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **99.470 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,02** hartzen du. 2022koarekin alderatuta, **apur bat igo** da (+ 1.470 €), eta 2022ko aurrekontu osoaren gainean zuen ehuneko berari eutsi dio. Programa osoa ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egingo den gastua da.

DONOSTIA LAGUNKOIA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	98.000,00	99.470,00	1.470,00	%1,50
GUZTIRA	98.000,00	99.470,00	1.470,00	%1,50

- PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako **berariazko partidari**k identifikatu.

Halere, kontuan izanik **sustatzen dituen proiektuen eta jardueren helburuak (hiriaren lagunkoitasuna hobetzea, adinekoen bizi kalitatea hobetzea eta, hedaduraz, Donostiako gizarte osoa hobetzea)**, Donostia Lagunkoia **genero ikuspegitik programa garrantzitsua da gure ustez**. Eragin esanguratsua du **adinekoen artean, emakumeak nagusi direlarik**, eta gainera zuzeneko lotura du zaintzekin eta adineko pertsonen parte hartzearekin.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren barruan, programa honek **ardura du 6. Proiektua—emaitzan, Indarkeria Matxistaren Prebentzio Integrala** (6.4 neurria. Adineko

emakumeentzako programetan sentibilizazio espazioak sortzea) eta **8.ean, Kalitatezko zaintzak eta enpleguak** (8.2 neurria. Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea eta 8.5 neurria, Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentua azaleratzeko).

• GOMENDIOAK

- ✓ **Beren zuzkiduretan kontuan hartzea** Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren barruan **aurreikusitako ekimenak**.
- ✓ **Ekintzak sistematizatzea eta** balioa ematea **genero ikuspegitik zuzeneko eragina dutenei eta/edo emakumeen bizi baldintzetan eragiten dutenei**.

GIZARTE EKINTZA PROGRAMAK

Jarraian Gizarte Ekintza Zuzendaritzako programa guztiak aztertuko ditugu, eta guztien amaieran Zuzendaritzako gastu eraldatzailearen batuketa osoa jasotzen duen taula bat erantsi dugu.

5.2.4. GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarte zerbitzuen zentroak programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **4.873.323 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen** % 1,06 hartzen du. 2022an 4.632.680 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 1,09. Beraz, **240.643 €**-ko igoera izan du programa honek (+ % 5,19).

GIZARTE ZERBITZUEN ZENTROAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	4.226.895,00	4.392.122,00	165.227,00	%3,91
2. kapitulua	405.785,00	481.201,00	75.416,00	%18,59
GUZTIRA	4.632.680,00	4.873.323,00	240.643,00	%5,19

Funtsezko programa da udal Gizarte Ekintza politiketarako. Programa honek gizarte zerbitzuen zentroetako langile gastua biltzen du, gizarte zerbitzu horiexek baitira euskal gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko ateak.

1. kapituluko igoera aurreko programetan jada adierazitako arrazoien ondorioa da (soldata igoera, Gizarte Segurantzako kuotak, antzinatasunen eguneraketak, etab.). Gainera, **kapitulu honetan 7.889.20 € sartzen dira programa honetako langileei zuzendutako prestakuntza emateko**. Programaren edukiaren xedea da indarkeria matxistaren biktimen seme-alabei arreta hobea ematea genero ikuspegitik.

2. kapituluko igoerari dagokionez, batez ere “Gizarte eta hezkuntza arloetan laguntzeko eta esku hartzeko programan” oinarritzen da. Programa hori hiriko auzo berrietara zabalduko da 2023an.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Lehen ere azaldu dugun bezala, programa honetan **7.889,20 €** identifikatzen dira **gastu eraldatzaile gisa**. Programa horretako **langileei prestakuntza** emateko xedea du, **helburua baita indarkeria matxistaren biktimen seme-alabei arreta hobe ematea genero ikuspegitik**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Programako **datuak** biltzeko eta **tratatzeko lanetan interseksionalitatea modu sistematikoan** txertatzea.

5.2.5. GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da. 2023ko aurrekontuan **807.328 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,17** hartzen du. 2022an 842.984 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,20. Beraz, **-35.656 €-ko jaitsiera** izan du programa honek (- % 4,23).

GIZARTE ONGIZATEA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	487.026,00	491.370,00	4.344,00	%0,89
2. kapitulua	29.492,00	32.992,00	3.500,00	%11,87
4. kapitulua	326.466,00	282.966,00	-43.500,00	-%13,32
GUZTIRA	842.984,00	807.328,00	-35.656,00	-%4,23

Programa honen jaitsiera bakarrik **4. kapituluan** gertatzen da (- % 13,32), izan ere, 2023an desagertu egin dira 2022ko aurrekontuan jasotako zuzeneko hiru dirulaguntza, kopuru bertsukoak hiruak (14.500 €). Dirulaguntza horiek Pausoka, Aspace eta Bizi Bide elkarteei zuzenduak ziren.

Bestalde, **eutsi egin zaio irabazi asmorik gabeko elkarteentzako dirulaguntza** lerroko (481-01) **zenbateko berberari**, 274.800 €. Elkarte eta proiektu horiek zuzeneko eragina dute zainketetan, eta beraz, **garrantzi handia dute genero ikuspegitik**. Beraz, positibotzat jotzen da aurrekontuari eustea eta, nola ez, igotzea.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez dugu gastu eraldatzailearik identifikatu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Arloko kontratazio pleguetan eta dirulaguntzak emateko oinarrietan txertatutako **klausula tipologien azterketa** bat egitea gomendatzen dugu horietan guztietan **berdintasun klausulak sartzean** urrats kualitatibo bat egin ahal izateko. Eta, ahal dela, generoak **klausuletan duen eragina neurtzea**.

5.2.6. APARTAMENTU TUTELATUAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Apartamentu tutelatuak programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **2.111.671 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,46** hartzen du. 2022an 1.917.247 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,45. Beraz, **194.424 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 10,14).

APARTAMENTU TUTELATUAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	182.809,00	186.509,00	3.700,00	%2,02
2. kapitulua	1.698.358,00	1.889.082,00	190.724,00	%11,23
4. kapitulua	36.080,00	36.080,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	1.917.247,00	2.111.671,00	194.424,00	%10,14

Igoera batez ere **2. kapituluan** gertatzen da, Zorroaga Fundazioarekin egindako kontratu-programa berri bat sartu baita Arrasate kalean 34 apartamentu kudeatzeko (2022ko urriaren 1etik dago programa hori erabilgarri).

Programa horrek biltzen ditu adineko pertsona autonomoei zuzendutako etxebizitza sozialak mantentzeko gastuak, eta beraz, eragin positiboa duen programa da zainketen esparruan.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez dugu gastu eraldatzailerik identifikatu.

Programa hau zuzenean dago lotuta zainketekin eta erantzukizunarekin, eta beraz, **garrantzi handikoa da genero ikuspegitik**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Zerbitzuaren eskaera datuei, estaldura indizeei eta pertsona onuradunak hautatzeko irizpideei buruzko azterketa sistematiko bat egitea gomendatzen da, **sexuak bereizirik, genero ikuspegitik balorazio bat** egiteko. Era berean, desiragarria litzateke **azterketa egiteko aldagai berriak** txertatzea (interseksionalitatea).**

5.2.7. GIZARTE ABEGI ETXEA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte abegi etxea programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **1.420.362 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,31** hartzen du. 2022an 1.378.956 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,32. Beraz, **41.406 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 3,00).

GIZARTE ABEGI ETXEA	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	775.420,00	959.133,00	183.713,00	%23,69
2. kapitulua	453.536,00	461.229,00	7.693,00	%1,70
6. kapitulua	150.000,00	0,00	-150.000,00	-%100,00
GUZTIRA	1.378.956,00	1.420.362,00	41.406,00	%3,00

1. kapituluko igoera ez da plantilla handitzearen ondorio. Izan ere, 2022ko ekitaldian ikusi da kapitulu honetarako aurreikuspenak ez zirela nahikoak langileak zerbitzuaren tipologiagatik ordeztzeko (bajak, oporrak eta beste baimen batzuk tarteko). Ondorioz, 2023ko ekitaldiari begira, 2022ko gastu errealean oinarritutako aurreikuspena egin da.

2. kapituluak bildu egiten ditu etxegabeak hartzeko Mons pasealekuko abegi etxe bat mantentzeko gastuak. Erabiltzaileek gehienez ere 5 gau eman ditzakete etxe horretan. “Exijentzia maila apaleko” etxea da eta erabiltzaile gehienak gizonezkoak dira.

6. kapituluan jaitsiera bat dago 2022an etxeko gorputz erantsia eraberritzeko aurrekontua egin zelako **familiei harrera hobe**a egiteko, izan ere, familia horien beharrian errealeara egokitu behar ziren instalazio horiek. Une honetan esleitzeke dago obra, eta 2022ko aurrekontu hori 2023kora gehituko da esleitzen den unean.

Obra horrek **eragin positiboa izango du emakumeentzat eta haurrentzat**, muturreko zaugarritasun egoeran dauden familiek errazago eta modu egokiagoan izango baitute eskuragarri. Eta kolektibo horretan gehiago dira emakumezkoak, horien artean asko eta asko lagunik gabeko ama direlarik.

Etxean **genero ikuspegitik egindako diagnostikotik eratortzen da** ekintza hau. Diagnostiko horretan, besteak beste inbertsio hau egitea gomendatzen zen. Era berean, **Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak, 7. proiektua-emaitzaren barruan, Erreparazio integrala**, 7.4 neurria sartzen

da, "Emakumeentzako harrera baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzea". Etxe hau neurri horri erantzuten lagundu diezaiokeen baliabidea da.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Eutsi egiten zaio Abegi Etxeko erabiltzaileei zuzendutako **prestakuntza eta jarduerak genero ikuspegiarekin** egiteko 2022an esleitutako **10.000 €-ko zuzkidurari**. 2023an 2006.10 *Beste enpresa batzuek egindako lan bereziak* partidari esleitu zaio zenbateko hori.

• GOMENDIOAK

- ✓ Etxearen diagnostikotik eratorritako **ekintzak genero ikuspegitik txertatzen jarraitzea.**

5.2.8. GIZARTERATZEA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Gizarteratzea programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **4.403.978 €-ko** zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,95** hartzen du. 2022an zuzkidura handiagoa izan zuen, 5.105.073 €-koa, aurrekontu osoan ere pisu handiagoa izan zuela (% 1,20). Beraz, - **701.095 €-ko jaitsiera** izan du programa honek (- % 13,73).

GIZARTERATZEA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	553.799,00	577.363,00	23.564,00	%4,25
2. kapitulua	2.453.727,00	2.544.495,00	90.768,00	%3,70
4. kapitulua	997.000,00	1.282.120,00	285.120,00	%28,60
6. kapitulua	1.100.547,00	0,00	-1.100.547,00	-%100,00
GUZTIRA	5.105.073,00	4.403.978,00	-701.095,00	-%13,73

4. kapituluan gertatzen da **igoera esanguratsuen**a, izan ere, partida berri bat sartu da, 480.04 Elikatzeko laguntzak: ostalaritza zentroak, 285.120 €-ko zenbatekoarekin, eta horrek 4. kapituluaren + % 28,6ko igoera ekarri du. Igoera horrek, berez, **jada 2022an bazegoen gastu baten berregituraketa baten emaitza da**. Ekitaldi hartan zenbateko bat esleitu zen 2. kapituluaren baitan, baina geroago, gauzatzean, aurrekontu aldaketa bat onartu zen 4. kapitulura eramateko. 2023ko ekitaldiari begira, errealitatera egokitu da eta hasieratik bildu da 4. kapituluan.

2023an ez da 6. kapitulua aurreikusten, Salia Etxea moldatzeko aurrekontu osoa 2022ko ekitaldian esleitu baitzen.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa honetan ez dugu gastu eraldatzailerik identifikatu.

Tamalez, ekitaldi honetan, aurreko ekitaldietan ez bezala, **ez da Heziketa sexualari eta indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko prestakuntza tailerrak** egiteko aurrekonturik sartu. Tailer horiek estrategikoak dira indarkeria matxista prebenitzeko, eta zaurgarritasun egoera larrian zeuden pertsonei zuzenduak ziren.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Ahal den neurrian, **datuen azterketa interseksionalean** (sexua, adina, jatorria eta beste batzuez gain, beste aldagai batzuk sartu) eta **eratorritako neurrien txertaketan** aurrerapausoak egitea.
- ✓ **Gizarteratze eta laneratze tailerretako** erabiltzaileen **Heziketa sexualari eta indarkeria matxistaren prebentzioari** buruzko **prestakuntza tailerretarako aurrekontua berreskuratzea** gomendatzen da.

5.2.9. ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Adin txikikoen prebentzioa eta familia programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **3.425.142 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,74** hartzen du. 2022an 3.165.376 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,75. Beraz, **259.766 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 8,21).

ADIN TXIKIKOEN PREBENTZIOA ETA FAMILIA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	634.526,00	653.448,00	18.922,00	%2,98
2. kapitulua	2.530.850,00	2.771.694,00	240.844,00	%9,52
GUZTIRA	3.165.376,00	3.425.142,00	259.766,00	%8,21

Igoera batez ere 2. kapituluan gertatzen da, zehazki 227.04.09 *Formakuntza, aholkularitza eta esku hartze goiztiarra* partidan, + **253.977 €-ko igoerarekin**. Igoera hori zerbitzu hauen zenbatekoaren igoeran oinarritzen da:

- **Babesgabetasun arin edo ertaineko kasuen ardura duten psikologoaren sare komunitarioaren** kontratu berria 2023ko urtariletik aurrera (Balorazioa, Kasuaren Plana, baliabideen artikulazioa, Esku hartzearen amaiera). Hitzarmen kolektibo berriaren ondorioz, + 108.881 €-koa da igoera.
- **Esku hartze goiztiarra** programaren kontratu berria 2022ko abendutik aurrera modu goiztiarrean hautemandako kasuekin lan egiteko, zuzenean hezkuntza, osasun, aisialdi eta beste esparru

batzuetako profesionalekin. Programa hau, halaber, Koordinatzailearen lanaldia % 100era igo delako eta unitate profesional bakoitzaren lanaldia % 9tik % 10era emendatu delako igo da.

Genero ikuspegitik, garrantzitsua da programa hau, eta beraz, positiboa da programan jarduten duten profesionalek arreta handiagoa jartzea.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimei Arreta emateko Zerbitzua (IMEBAZ) programa honetan txertatzen da maila funtzionalean. IMEBAZek ostatu, harrera, diagnostiko, orientazio, laguntza psikologiko eta premiazko laguntza ekonomikoko baliabideak eskaintzen dizkie indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeei.

Beraz, gastu eraldatzailerat hartzen da langile horiei bideratutako **pertsonal gastua**, 2023an **191.161,59 €**-koa izango dena (2022an 183.587,95 €-koa izan zen). Udal langile guztiei aplikatutako soldata igoera orokorretik eratorritako igoera da.

227.04.02 Indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programa partidaren aurrekontu esleipena **6.000 €**-ra jaitsi da (17.900 € 2022an). Jaitsiera horren arrazoia da 2022an hasi zela Protokoloa eguneratzeko proiektua, eta 2023an esleitutako zenbatekoa protokoloa ezartzeko laguntza teknikora bideratuta dagoela.

• GOMENDIOAK

- ✓ Indarkeria matxistari arreta emateko eta prebenitzeko baliabideak, hiriko dimentsioari eta errealitateari egokituak, indartzen jarraitzea.

5.2.10. ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Adineko pertsonen sustapena programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **671.469 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,15** hartzen du. 2022an 491.283 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,12. Beraz, **180.186 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 36,68).

ADINEKO PERTSONEN SUSTAPENA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	163.681,00	294.936,00	131.255,00	%80,19
2. kapitulua	302.865,00	351.796,00	48.931,00	%16,16
4. kapitulua	24.737,00	24.737,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	491.283,00	671.469,00	180.186,00	%36,68

Programa horren bidez laguntzen zaie beren jarduerak udal ekipamenduetan edo ekipamendu propioetan garatzen dituzten adinekoen elkarteei.

Batez ere **1. kapituluko igoera** nabarmentzen da (+ % 80,19). Hainbat arrazoiren ondorio da igoera hori: alde batetik, gizarte langileen kopuruaren igoera absolutua, 2022an 3 baitziren eta 2023an 5. Eta bestetik, jada beste programa batzuetan azaldu ditugun soldata igoera, Gizarte Segurantzaren kostua eta antzinasuna.

3 gizarte langiletik 5 gizarte langilera igotzearen arrazoia da 2022an beste lanpostu bat gehitzea onartu zela, eta Gizarte Ekintza arloetako organigrama berregituratu egin dela, izan ere, gizarte langile lanpostu bat arloko beste programa batetik lekualdatu da honetara.

2. kapituluari dagokionez, batez ere **bi partida handitu direlako** handitu da: *227.04.01 Dinamizazioa zentroetan* partida 176.634 € izatetik 199.140 € izatera igaro da 2023an (+ % 12,74), eta *227.04.02 Topalekuaren Kudeaketa* partida 2022an 90.000 € izatetik 2023an 116.655 € izatera igaro da (+ % 29,62). Bi partida horiek lotuta daude erabiltzaileei zerbitzuak zuzenean ematearekin, eta beraz, **komenigarria da horietan genero ikuspegia txertatzea.**

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programaren baitan ez dugu gastu eraldatzailerako partida espezifikorik identifikatu.

Genero ikuspegitik, generoari garrantzi handiena ematen dioten partidak lehen aipatutako 2. kapitulukoak dira (227. 04. 02 eta 227. 04. 01), gizarte eta kultura kontratuak kudeatzeko eta Aieteko auzoko Topalekua deritzon zentroa kudeatzekoak. Baita 227.25 partida ere, zehazki 55 urtetik gorakoentzako “+55” udal aisialdi eta denbora libreko programa.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Adineko emakumeen beharrian errealetan sakontzea, indarkeria matxistako kasuei arreta berezia emanez.

5.2.11. ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Adineko pertsonentzako egoitzak programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartzen da, eta 2023ko aurrekontuan **1.089.373 €**-ko zuzkidura du, hau da, udal **aurrekontuen % 0,24** hartzen du. 2022an 918.755 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontu osoaren % 0,22. Beraz, **170.618 €-ko igoera** izan du programa honek (+ % 18,57).

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	918.755,00	1.089.373,00	170.618,00	%18,57
GUZTIRA	918.755,00	1.089.373,00	170.618,00	%18,57

2. kapitulua mugatzen da aurrekontu zuzkidura. Zenbateko hori Zorroaga Fundaziora bideratuko da adineko pertsona autonomoei egoitza ekipamenduan ostatu eta arreta zerbitzua emateko. Igoeraren arrazoia da egoiliarren koordainketaren ehunekoa beherantz aldatu dela (% 40tik % 35era), horrexegatik handitu da Udalaren ekarpena. Gainera, prezioak berrikusi dira EAEko KPIa aintzat harturik (% 5).

- PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako partida jakin bat zehazten.

- GOMENDIOAK**

- ✓ Komenigarria da **zerbitzuaren eskaerari buruzko eta estaldura indizeari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita edukitzea**, zerbitzuaren egokitasuna genero ikuspegitik baloratu ahal izateko.

5.2.12. ETXEZ ETXKO LAGUNTZA

- PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikako **Etxez etxeko laguntza** programa + **825.733 €**-an handituko da 2023an (+ % **8,96**), 9.214.984 € izatetik (aurrekontuetan % 2,17 hartuta) 10.040.717 € izatera igaroko baita (+ % 2,17).

ETXEZ ETXKO LAGUNTZA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	109.675,00	116.523,00	6.848,00	%6,24
2. kapitulua	9.105.309,00	9.924.194,00	818.885,00	%8,99
GUZTIRA	9.214.984,00	10.040.717,00	825.733,00	%8,96

1. kapituluko igoera aurreko programetan jada adierazitako arrazoiaren ondorioa da (soldata igoera, Gizarte Segurantzako kuotak, antzintasunen eguneraketak, etab.).

2. kapituluari dagokionez, 2022. urte amaieran **beste lizitazio bat** onartu zen, sektorerako onartutako lan hitzarmenaren baldintza berrien ondoriozko ordainsari igoera islatu duena.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Programa barruan ez da gastu eraldatzailerako partida jakin bat zehazten.

Funtsezko zerbitzua da genero ikuspegitik, eragin hirukoitza baitu: alde batetik zaindutako pertsonen artean, kalitatezko zerbitzuarekin gozatu baitezakete; bigarrenik emakume langileen artean, eta hirugarrenik, Etxez etxeko arreta zerbitzuak egin gabeko lan horiek beren gain hartu beharko lituzketen pertsonen artean, kasu askotan etxeko eremuan eta ordainsaririk jaso gabe, eta, ongi dakigunez, gehien-gehienak emakumeak direlarik.

Azken urteetako datuen arabera, **gehien-gehienak emakumeak dira artatutako pertsonak**, eta zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak **kontratutako gehienak** ere emakumeak dira, izan ere, **oso feminizatuta dago kolektibo hori**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Zerbitzuaren eskaerari buruzko eta estaldura indizeari buruzko datuak** sexuaren arabera bereizita aztertzea, zerbitzuaren egokitasuna genero ikuspegitik baloratu ahal izateko.
- ✓ Udalak sustatutako **zerbitzua kontratatzeko pleguan genero klausulak txertatzen direla ziurtatzea**: esate baterako, langileen prestakuntza sexu jazarpen eta/edo sexuaren ziozko jazarpen kasuetan, erabiltzaileen artean indarkeria matxistaren kasuak hautematea, etab.

5.2.13. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikako **Gizarte Larrialdietarako Laguntza** programa + % **20,69 handitu da 2022ko ekitaldiaren aldean**, 2.693.355 € izatetik 3.250.626 € izatera igaro baita. Halaber, aurrekontuetan duen pisuak gora egin du, 2022an % 0,63 hartzen baitzuen eta 2023an % 0,70.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
4. kapitulua	2.693.355,00	3.250.626,00	557.271,00	%20,69
GUZTIRA	2.693.355,00	3.250.626,00	557.271,00	%20,69

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Ez da gastu eraldatzailerako partida jakin bat zehazten.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Datuak sexuaren arabera bereizteko praktikan sakontzea eta datu horiek genero ikuspegitik aztertzea.** Ahal dela, datuen azterketan **ikuspegi intersektionala** txertatzea (adina, jatorria, etab.). Ez Binarioa gelaxkaren integrazioa baloratzea.

5.2.14. ZAHAR ETXEAK

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Zahar etxea programa Gizarte Ekintzaren zuzendaritzapean dago. Halere, aurrekontuari dagokionez, *Lehentasunezko ondasun ekoizpena eta Kultura* arloko gastu politikan sailkatzen da. 2023ko ekitaldiari begira 1.350.555 €-ko aurrekontua du, udal aurrekontuetan % 0,29 hartzen du. 2022an 1.334.071 €-ko zuzkidura izan zuen, aurrekontuetan % 0,31 hartzen zuen.

Beraz, + **16.484 €-an handitu** da programa hau (+ % **1,24**).

ZAHAR ETXEAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	642.371,00	627.355,00	-15.016,00	-%2,34
4. kapitulua	601.700,00	723.200,00	121.500,00	%20,19
6. kapitulua	90.000,00	0,00	-90.000,00	-%100,00
GUZTIRA	1.334.071,00	1.350.555,00	16.484,00	%1,24

Nagusiki honako hauek dira programa honetan gertatutako aldean arrazoiak: 2023rako inbertsiorik ez aurreikustea, eta 4. kapituluko zuzkidura handitzea, zahar etxeetako **argi eta gas gainkostua** konpentsatzeko **laguntza deialdi osagarri** bat egiteko.

Era berean, gastu errealerara egokitu da 2. kapituluan sartutako komunitate gastuetara bideratutako zenbatekoa.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2023. urterako ez da gastu eraldatzailerik zehazten.

Nabarmentzekoa da **Adineko Pertsona Jubilatuen Elkarteetako Zuzendaritza Batzordeetan** emakumeen ahalduntzea lortzeko azken urteetan bideratutako jarduera lerroa. Batzordeetako zuzendaritzetan emakumeen ordezkariak indartzeko hainbat urrats egin dira, batzorde horiek parekideagoak izan daitezen eta emakumeek elkarte horietan duten ordezkariaren ehunekoarekin bat etor daitezen. Modu horretan, ondoko tauletan ikus daiteke emaitza aldekoa gertatu dela 2014 eta 2022 bitartean:

DONOSTIAKO APJE. LEHENDAKARITZEN EBOLUZIOA						
	2022		2018		2014	
EMAKUME BATZORDEBURUAK	13	% 54	10	% 42	7	% 30
GIZON BATZORDEBURUAK	11	% 46	14	% 58	16	% 70
APE GUZTIRA	24	% 100	24	% 100	23	% 100

Donostiako AEJ	BAZKIDE KOP. (21/12/31)	EMAKUMEAK	E %	GIZONAK	G %
GUZTIRA	12.651	8.397	% 66,37	4.253	% 33,62

- GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasun arloarekiko harreman sistematikoa** ezartzea adineko emakumeak ahalduztzeko ekintza posibleak identifikatzeko eta indarkeria matxistaren aurka prebenitzeko eta jarduteko.

GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMEN GASTU ERALDATZAILEAREN LABURPENA

Kontuan izanik aurrez **gizarte ekintzako programa** guztiei buruz azaldutako guztia ondorioztatu dezakegu 2023. urterako aurreikusitako **gastu eraldatzailea** - **% 43,40an apaldu dela**, 365.987 € izatetik 207.161,59 € izatera igaro baita.

GIZARTE EKINTZA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	188.087,95	191.161,59	3.073,64	%1,63
2. kapitulua	27.900,00	16.000,00	-11.900,00	-%42,65
6. kapitulua	150.000,00	0,00	-150.000,00	-%100,00
GUZTIRA	365.987,95	207.161,59	-158.826,36	-%43,40

5.3. LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA

15 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Osasun sustapena.
- Osasun publikoa eta animalien ongizatea.
- Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua.
- Udal Musika eta Dantza Eskola (3 programa): Musika eta dantza eskola / Musika eta dantza eskola (Liburutegia) / Musika eta dantza eskola (Txistulariak).
- Heziketarako programak.
- Giza eskubideak.
- Kultura aniztasuna
- Donostia kultura.
- Euskara.
- Gazteria.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa.
- Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (Donostia Kirola) / Kirol instalazioak (Donostia Kirola).

5.3.1. OSASUN SUSTAPENA

● PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Osasuna gastu politikaren barnean dugu **Osasun sustapena** programa, eta 2023. urterako 188,069 €-ko aurrekontu zuzkidura du, hau da, 2022an baino + 7.859 € gehiago (+ % 4,11). Aitzitik, aurrekontuetan duen pisua apur bat apaldu da, % 0,05etik % 0,04ra.

OSASUN SUSTAPENA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	122.960,00	130.819,00	7.859,00	%6,39
2. kapitulua	68.250,00	68.250,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	191.210,00	199.069,00	7.859,00	%4,11

1. kapituluko igoera aurreko programetan jada adierazitako arrazoiaren ondorioa da (soldata igoera, Gizarte Segurantzako kuotak, antzintasunen eguneraketak, etab.).

● PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honek **ez du gastu eraldatzaille** jakin **bat zehazten**.

Halere, aipatzekoa da lan sisteman datuak sexuaren arabera bereizita erabiltzea eta beste aldagai batzuk baliatzea (errenta, auzoa, etab.). Datu horiek guztiak Donostiako Udaleko **Diagnostikoa eta I. Osasun Plana** (2022-2025) dokumentuetan daude jasota.

Gainera, **Plan horretako premisa orokorre** **osasunaren kontzeptu global bat** dute ardatz (gaixotasun gabezia, gizarte ongizatea, ongizate emozionala eta kulturala). Plan horrek donostiarren osasuna eta ongizatea hobetzen lagundu nahi du hiru arlo nagusiren bitartez: “Auzoetan osasuna zaintzen eta sustatzen

duten inguruneak", "Osasuna sorrarazten duten programak eta zerbitzuak" eta "Osasuna eta Ekitatea udal arlo eta departamentu guztietan eta haien politiketan".

Zuzenean pertsonen ongizatearekin eta **zaintzarekin eta hiriburuko eremuen arteko eta auzoen arteko sareak sustatzearekin** estu lotuta dagoenez, gure aburuz Planaren edukiak berak **garrantzi handia du genero ikuspegitik**. Ildo horretan, aipatutako planean, hainbat esparrutan bideratu beharreko **ekintza espezifiko** batzuez gain, badago honako helburu hau duen ekintza bat: *"Donostiako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Planarekin aurrera egitea"* (2020-2024).

Adibide gisa nabarmenduko ditugu **"Emakumeen parte hartzea kultura aniztasunaren ikuspegitik sustatzea"** eta **"Auzoetan Erlauntza ekimena abian jartzea"** ekimenak. Azken horren xedea da auzo bateko zerbitzu publiko eta pribatu desberdinetako langileez osatutako tokiko Taldeen bidez sareak ehuntzea; talde horiek, etengabeko konfiantzazko harremanaren bidez, lankidetzak planteatuko dituzte, proiektuak abian jarriko dituzte edo komunitate horren arazo zehatzetarako konponbideak bilatuko dituzte.

• GOMENDIOAK

- ✓ Urtero **identifikatzea berdintasunaren sustapenarekin eta/edo gastu eraldatzailearekin zuzeneko lotura duten ekintzak.**
- ✓ **Planaren emaitza adierazleen bidez Osasun Planean aplikatutako neurrien genero eragina ebaluatzea** (sexuaren, gizarte klasearen eta auzoaren arabera bereizirik, Planean adierazi bezala).
- ✓ **Berdintasun arloarekin elkarrekintza mantentzea eta/edo sustatzea, aliantzak edo baterako ekintzak egiteko.**

5.3.2. OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Osasuna gastu politikaren barnean dugu **Osasun publikoa eta animalien ongizatea** programa, eta 2023. urterako 995.088 €-ko aurrekontu zuzkidura du, hau da, 2022an baino + 32.276 € gehiago (+ % 3,35). Aitzitik, aurrekontuetan duen pisua apur bat apaldu da, % 0,23tik % 0,22ra.

OSASUN PUBLIKOA ETA ANIMALIEN ONGIZATEA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	573.269,00	599.702,00	26.433,00	%4,61
2. kapitulua	389.543,00	395.386,00	5.843,00	%1,50
GUZTIRA	962.812,00	995.088,00	32.276,00	%3,35

1. kapituluko igoera aurreko programetan jada adierazitako arrazoiaren ondorioa da (soldata igoera, Gizarte Segurantzako kuotak, antzintasunen eguneraketak, etab.).

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honek **ez du gastu eraldatzaile** jakin bat zehazten.

Halere, **227.04.01 "Adikzioen Plana"** partidatik garatutako jarduera oro har 2022an egindako egoeraren diagnostiko batean oinarritzen dela jakinarazi zaigu, eta diagnostiko horretan datuak sexuaren arabera bereizita daudela, eta bideratutako esku hartzeak neska eta mutil hartzaileen errealitatera egokitzen ari direla.

Gure ustez, esku hartze horren izaera **garrantzitsua da genero ikuspegitik**, esku hartze horiek zuzenean bideratzen baitira Donostiako gazteekin, eta haien bidez desberdintasun, jazarpen eta indarkeria egoerak landu baitaitezke eta/edo beste udal zerbitzu batzuetara bidera baitaitezke.

• GOMENDIOAK

- ✓ Udala oro har sustatzen ari den bezala, zerbitzua emateko kontratazioaren oinarrietan **genero klausulak txertatzen direla ziurtatu behar da**.
- ✓ Urtero **identifikatzea berdintasunaren sustapenarekin eta/edo gastu eraldatzailearekin zuzeneko lotura duten ekintzak**. Baita burura eramandako esku hartzeekin lotutako **genero adierazleak** ere.
- ✓ **Berdintasun arloarekin elkarrekintza** mantentzea eta/edo sustatzea, aliantzak edo baterako ekintzak egiteko.

5.3.3. HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntza gastu politikaren barruan dugu **Hezkuntzako ikastetxeen Funtzionamendua** programa, 2023rako **8.157.856 €**-ko aurrekontu zuzkidura duena, **2022an baino + 697.949 € gehiago (+ % 9,36)**. Aurrekontuetan duen pisuak ere gora egin du % 1,76tik % 1,77ra.

HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.907.172,00	1.964.046,00	56.874,00	%2,98
2. kapitulua	5.252.735,00	5.793.810,00	541.075,00	%10,30
6. kapitulua	300.000,00	400.000,00	100.000,00	%33,33
GUZTIRA	7.459.907,00	8.157.856,00	697.949,00	%9,36

Programa honek sare publikoko **lehen eta haur hezkuntzako ikastetxeen mantentze** lanak ditu esleituta. 2023an **2. kapituluko igoera** batez ere energia elektriko (+235.973 €, + % 98,32) eta gas (+273.507, + % 91,17) partiden igoeran oinarritzen da.

Bestalde, **6. kapituluari** dagokionez, genero ikuspegitik positiboa da **partida berri** bat sartzea: **622.01.02 Patio inklusiboak, 100.000 €-ko zenbatekoarekin.**

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Gastu eraldatzailatzat hartzen da patio inklusiboetara bideratutako zenbateko osoa, guztira **100.000 €**.

Partida horrek bete-betean erantzuten dio Udaleko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planaren 5.2 neurriari: *“Hezkidetzarako patioak. Genero ikuspegia txertatzea ikastetxeetako patioetan egiten diren hobekuntza eta mantendu lanetan (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratzea, mugimendu edo kirol praktika askotarikoak egitekoak)”*.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ **Patio inklusiboak abian jartzeko ildoak garatzen jarraitzea** Udaleko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Planaren 5. Proiektua-emaitzan ezarritakoaren arabera.
5.2. Hezkidetzarako patioak. Genero ikuspegia txertatzea ikastetxeetako patioetan egiten diren hobekuntza eta mantendu lanetan (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratzea, mugimendu edo kirol praktika askotarikoak egitekoak).

5.3.4. UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (3 PROGRAMA): MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA) / MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK).

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Musika eta Dantza Eskola **Udal Erakunde Autonomoa** da, eta arautu gabeko irakaskuntzaren helburuetan parte hartzen du, kulturaren sorkuntza, kritika eta transmisioari begira, musika eta dantza diziplinen berariazko eta lehentasunezko eremutik.

Hiru aurrekontu programek osatzen dute programa honen aurrekontua: Musika eta dantza eskolak, 5.368.419 €-ko zuzkidurarekin (2022koarekin alderatuta, % 5,91ko igoera), Musika eta dantza eskolak (liburutegia), 171.686 €-ko zuzkidurarekin (2022an baino % 7,48 gehiago) eta Musika eta dantza eskolak (Txistulariak), 690.995 €-ko zuzkidurarekin, 2022an baino % 4,88 gutxiago.

Beraz, batera hartuta, Musika Eskolak **6.231.100 €-ko aurrekontua** du **2023.** urterako, hau da, 2022an baino (5.955.121 €) **% 4,63 gehiago. Aurrekontu osoaren % 1,35** hartzen du, eta 2022an % 1,40 hartzen zuen.

Donostiako Udalaren ekarpena guztira 3.705.000 €-koa da gastu arruntetan (2022an 3.319.022 €-koa izan zen). 2023an ez da ekarpenik esleitzen kapital gastuetan (2022an 140.943 €-koa izan zen).

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.227.032,00	5.617.785,00	390.753,00	%7,48
2. kapitulua	586.696,00	611.565,00	24.869,00	%4,24
3. kapitulua	450,00	1.750,00	1.300,00	%288,89
6. kapitulua	140.943,00	0,00	-140.943,00	-%100,00
GUZTIRA	5.955.121,00	6.231.100,00	275.979,00	%4,63

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Eutsi egiten zaio 5.100 €-ko gastu eraldatzaileri, nola zenbatekoari hala gastuaren xedeari dagokienez, Eskolako Barne Berdintasun Batzordeak bultzatutako jardueretan oinarrituta, genero zeharkakotasuna lortu nahi baitu, bai ikastetxearen kudeaketan bai zerbitzuaren eskaintzan.

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Protokolo eta ordezkariak gastuak (02.226.02)	600,00	600,00	0,00	%0,00
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda (02.226.03)	600,00	600,00	0,00	%0,00
Bilera eta hitzaldiak (02.226.05)	1.500,00	1.500,00	0,00	%0,00
Kanpoko bestelako enpresa lanak (01.227.99.99)	1.800,00	1.800,00	0,00	%0,00
Funts bibliografikoak (41.628)	600,00	600,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	5.100,00	5.100,00	0,00	%0,00

Musika eta dantzaren inguruko balizko genero estereotipoei aurre egiteko jarduerak Berdintasun Batzordeak sustatzen ditu irakasle gehienek ere parte hartzen dutelarik. Gainera, Eskolak sistematikoki ditu **datuak sexuaren eta diziplinaren arabera** bereizirik.

• GOMENDIOAK

- ✓ Barne Berdintasun Taldetik **jarduerak sustatzen jarraitzea** eta, gastu eraldatzailera bideratutako baliabideak ahal den neurrian handitzea.
- ✓ Burututako jardueren eragina ebaluatzen duten **genero adierazleen ezarpenean aurrerapausoak egitea**.

5.3.5. HEZIKETARAKO PROGRAMAK

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntza gastu politikako **Heziketarako Programak** programa **pixka bat handitu** da 2023an, zehazki % **1,29**, eta 267.716,00 € izatetik 271.174,00 € izatera igaro da. Eutsi egiten dio aurrekontuetan izan duen pisuari, % 0,06 hartzen baitu.

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	57.247,00	60.705,00	3.458,00	%6,04
2. kapitulua	80.140,00	80.140,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	130.329,00	130.329,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	267.716,00	271.174,00	3.458,00	%1,29

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Mantentzen eta finkatzen da 2022ko gastu eraldatzailearen aurrekontu zuzkidura, aurtengo zuzenketak aurkeztu ondoren egindako aldaketak aintzat hartuta. Ondorioz, 2023ko aurrekontuan **70.073 €-koa** da programa honetako gastu eraldatzailearen guztizkoa.

Partida hauetan banatuko da zenbateko hori:

- 226.99.02 "Genero indarkeria prebenitzeko programa" partida, 27.900 €-ko zenbatekoarekin.
- 226.99.01 "Berdintasun programa" partida, guztira 24.840 €-ko zenbatekoarekin.
- 229.99.06 "LGTBIQ+ diskriminazioaren eta bullying-aren aurkako kanpaina" partida, 10.500 €-ko zuzkidurarekin.
- 481.03 "Hip Hip Hurri Programa" partida, 6.833 €-ko zuzkidurarekin.

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	63.240,00	63.240,00	0,00	%0,00
4. kapitulua	6.833,00	6.833,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	70.073,00	70.073,00	0,00	%0,00

• GOMENDIOAK

- ✓ Hezkuntza esparruko elkarteekin egiten diren hitzarmenetan eta ematen diren dirulaguntzen oinarrietan **berdintasun klausulak balioesteko** gomendioari eusten diogu, diruz lagundutako jardueretan **hezkidetza bermatu** ahal izateko.

5.3.6. GIZA ESKUBIDEAK

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Hezkuntza gastu politikan sartzen den **Giza Eskubideak** programa, eta - % **26,54an apaldu da 2022ko aurrekontuaren aldean**, 824.380,00 € izatetik 605.583,00 € izatera igaro baita. Era berean, jaitsi egin da aurrekontuetan duen pisua, 2022an % 0,19 hartzen baitzuen eta 2023an % 0,13.

GIZA ESKUBIDEAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	225.672,00	241.705,00	16.033,00	%7,10
2. kapitulua	509.728,00	274.898,00	-234.830,00	-%46,07
4. kapitulua	88.980,00	88.980,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	824.380,00	605.583,00	-218.797,00	-%26,54

Jaitsiera hori batez ere **2. kapituluan** gauzatzen da (- % 46,07), eta 2022an sartutako bi partida dira jaitsiera hori eragin dutenak:

- 226.99.03 **Giza eskubideen zinemaldia** partida, 0,00 €-ko aurrekontu esleipena izango duena. Aldaketa horren arrazoia da 2022an Donostia Kulturak bideratu zuela giza eskubideen zinemaldia (dagokion aurrekontu aldaketa egon ondoren), eta 2023an **zuzenean esleitu zaiola Donostia Kulturari** zinemaldia antolatu dezan.
- Eta 226.99.07 **Beste erakundeekiko proiektuak** partida, - 115.500 € gutxiago izango dituen (- % 71,46). 2022an partida horren barruan zegoen **Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Aieteko Zentroaren (Eskura) proiektu pilotua**, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena iraungi ondoren 2023an Udalak bakarrik kudeatuko du bere ekarpena.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.99	Bestelako gastuak	216.530,00
226.99.01	Oroimen historikoa	57.250,00
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	76.400,00
226.99.03	Giza Eskubideen Zinemaldia	0,00
226.99.06	Oraitzepenezko ekintzak eta biktimen aitortza	18.000,00
226.99.07	Beste erakundeekiko proiektuak	46.130,00
226.99.08	Gerra Zibileko kokalekuak seinalatzatzea	18.750,00

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Gastu eraldatzaileari dagokionez, azpimarratzekoa da +17.000 € gehitu direla 2022aren aldean, hau da, 29.000 € 2023rako, 226.99.02 partidan sartuta, honako xehetasun hauekin:

- 15.000€ ekainaren 28ko kanpainarako – LGTBIQ+.
- 2.000€ LGTBifobiari buruzko urteko txostenak egiteko.
- 12.000 €LGT ekintza-planerako.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ LGTBIQ+ arloan politika publikoak **mantentzea eta indartzen jarraitzea.**

5.3.7. KULTURA ANIZTASUNA

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Hezkuntza gastu politikan sartzen den **Kultura Aniztasuna** programa + % 6,17 handitu da 2022ko zuzkiduraren aldean, eta 401.081,00 € izatetik 425.835,00 € izatera igaro da. Eutsi egiten dio aurrekontuetan izan duen pisuari, % 0,09 hartzen baitu.

KULTUR ANIZTASUNA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	165.317,00	176.071,00	10.754,00	%6,51
2. kapitulua	148.074,00	162.074,00	14.000,00	%9,45
4. kapitulua	87.690,00	87.690,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	401.081,00	425.835,00	24.754,00	%6,17

Aldaketa esanguratsuen **2. kapituluan** dagoen igoera da, + **14.000 €**-koa, **Sentsibilizazio kanpainetara** bideratua (**226. 99. 01**). Aurrekontu horrekin egiten dira arloarekin zerikusia duten nazioarteko egunak, hala nola:

- Martxoak 21: Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako eguna.
- Apirilak 8: Ijito Herriaren Nazioarteko eguna.
- Maiatzak 21: Kultura Aniztasunaren eguna.
- Ekainak 20: Errefuxiatuen Munduko eguna.
- Azaroak 20. Haurren nazioarteko eguna (kultura arteko ikuspegitik).
- Abenduak 19: Migratzaileen eguna.

Kanpaina horietan eguna gogoratzeko jarduera espezifikoak egiten dira, eta herritarrei zuzendutako prestakuntza eta saio batzuk egiten dira kulturarteko bizikidetzak sustatzeko eta zurrumurruei aurre egiteko. Kontuan harturik jardueren izaera, **genero ikuspegia txertatzea gomendatzen dugu.**

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Eutsi egiten zaio **8.944 €**-ko zenbatekoari gastu eraldatzaile gisa, **Emakumeen Etxeko** emakumeak ahalduztzeko eta elkartzeko **Emakumeen kulturarteko gunea** dinamizatzeko –jatorri askotariko emakumeen gunea da, astero-astero bilerak egiten dituen gure hirian migrazioaren bizipena partekatze–.

• GOMENDIOAK

- ✓ **Politika intersektionalak inplementatzeko bideratzen diren baliabideak** indartzea, kontuan harturik genero eta intersektionaltasun ikuspegitik programa estrategikoa dela Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean jasotako 2. Proiektua-emaitzako Ikuspegi Intersektionala ezartzeko.

5.3.8. DONOSTIA KULTURA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostiako Udalaren mendeko Enpresa Erakunde Publikoa da Donostia Kultura. Udalaren kultura politika bideratzen du, eta herritarrei kulturarekin eta herri jaiekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie, zerbitzu horiek nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpentzat hartzen baitira.

2022koaren aldean, 2023an + % **3,47an** igo da programaren **aurrekontu zuzkidura**, 30.634.202 € izatetik **31.697.617 €** izatera igaro da.

Udalak egiten duen ekarpena da programaren **diru sarrera iturri nagusia**, egungo aurrekontuan 25.630.000 € hartzen dituen **gastu arruntetan (2022an baino 1.410.000,00 € gehiago)** eta 600.000 € **kapital gastuetan (2022an baino 820.000,00 € gutxiago)**.

DONOSTIA KULTURA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	13.560.798,00	14.390.211,00	829.413,00	%6,12
2. kapitulua	15.010.041,00	16.064.043,00	1.054.002,00	%7,02
4. kapitulua	641.863,00	641.863,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	1.420.000,00	600.000,00	-820.000,00	-%57,75
8. kapitulua	1.500,00	1.500,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	30.634.202,00	31.697.617,00	1.063.415,00	%3,47

Aldaketa esanguratsuena 6. kapituluan geratzen da, - 820.000 €-an apaltzen baita. Inbertsioei dagokienez, informazio orokor zehaztugabea baizik ez dugu eskuratu:

- Eraikinak (200.000 €), - 1.120.000 €-ko jaitsierarekin.
- Eutsi egiten zaie Ekipamendu informatikoak eta aplikazioak partidari (50.000 €) eta Altzariak partidari (50.000 €).
- Eta gehitzen dira San Telmo Bilduma (150.000 €) eta San Telmo hobekuntzak (150.000 €).

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Programa honetako **gastu eraldatzailea** - % 46,83an apaldu da 2022koarekin alderatuta. Jaitsiera horren arrazoi nagusia da **amaitu egin direla** San Telmoko Baginen Bagara eta Lola Garridoren "Woman are beautiful" erakusketak, **gastu eraldatzailea -126.000 € gutxiago izatea** ekarri dutenak.

Halaber, - **1.000 €-an apaldu da emakumeen asterako** zuzkidura (**Intxaurrondo eta Altza**).

Aitzitik, **igoerak** gertatu dira beste hauetan: + **12.000 €** berezko **Berdintasun Planerako** zuzkiduran, **eta 5.000 € Gure Ahotsak** programarako, izan ere, 2023an bost kontzertu egitea aurreikusten da, eta protagonistak euskaraz eta gaztelaniaz abesten duten euskal artistak izango dira.

Azkenik, bost **gastu eraldatzaile berri gaitu dira, guztira 16.800 €-ko zenbatekoarekin**. Ondoko koadroan ikus daitezke xehetasunak:

DONOSTIA KULTURA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
Berdintasun plana	15.000,00	27.000,00	12.000,00	%80,00
Emakumearen asteak (Intxaurrondo eta Altza)	8.000,00	7.000,00	-1.000,00	-%12,50
Gure ahotsak kontzertua	15.000,00	20.000,00	5.000,00	%33,33
San Telmo museoko programazioa: "Baginen bagara"	61.000,00	0,00	-61.000,00	-%100,00
Hitzaldiak San Telmo museoan: Erronkak jardueraren baitan berdintasunaren inguruan bost hitzaldi	0,00	7.500,00	7.500,00	
San Telmo museoko programazioa: Argazki erakusketa (Lola Garrido "Woman are beautiful")	100.000,00	35.000,00	-65.000,00	-%65,00
Jarduera San Telmo Museoan: "Emakumea eta gorputza"	0,00	1.500,00	1.500,00	
Prestakuntza: Sexu jazarpenarekin autodefentsa feminista emakumeentzat	0,00	800,00	800,00	
Prestakuntza: "Berdintasuna, erosteko eta kontratatzeko irizpide gisa txertatu"	0,00	2.000,00	2.000,00	
LinkedIN DK Berdintasuna sortu (147 orduko dedikazioa)		5.000,00	5.000,00	
GUZTIRA	199.000,00	105.800,00	-93.200,00	-%46,83

• GOMENDIOAK

- ✓ Kultura programazioan **genero zeharkakotasuna txertatzeko** lanetan aurrerapausoak egiten jarraitzea.
- ✓ Ahal den neurrian **indartzea eta/edo handitzea gastu eraldatzaile** bideratutako baliabideak eta horiek identifikatzeko forma (kontabilitate analitikoa).

5.3.9. EUSKARA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Kultura gastu politikan sartzen den **Euskara** programa + % **2,84** handitu da **2022ko** zuzkiduraren aldean, eta 2.987.961 € izatetik 3.072.872 € izatera igaro da. Aurrekontuetan pisu txikiagoa du, lehen % 0,70 hartzen baitzuen eta orain % 0,67.

EUSKARA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.170.329,00	1.217.984,00	47.655,00	%4,07
2. kapitulua	1.076.579,00	1.106.835,00	30.256,00	%2,81
4. kapitulua	741.053,00	748.053,00	7.000,00	%0,94
GUZTIRA	2.987.961,00	3.072.872,00	84.911,00	%2,84

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Guztira **5.600 €** identifikatu ditugu **gastu eraldatzaille gisa**. Zenbateko horren guztizkoa 226.06.09 partidaren (4.000 €) eta 226.06.13 partidaren (1.600 €) artean banatzen da, gisa honetan banakatuta:

- **226.06.09 partida: Emakume atzeritarrei eta etxeko** langileei zuzendutako saioak, euskaraz oinarritzko ulermen gaitasunak izan ditzaten ahalbidetzeko, 4.000 €.
- **226.06.13 partida: Lan saioak Emakumeen Etxean**, Udaleko Euskara Planean jasotako hizkuntza jarraibideei buruzkoa, **600 €-ko** zuzkidurarekin. Eta **genero, kulturarteko eta hizkuntza** irizpideei buruzko lan saioak Udaleko teknikariekin, **1.000 €**.

Gainera, neurri osagarri gisa, barne dokumentu eta kudeaketa dokumentu guztietan **datuak sistematikoki** bereizten dituzte sexuaren arabera.

• GOMENDIOAK

- ✓ **Emakume atzeritarrak ahalduztzeko ekintzetan aurrerapausoak egiten** jarraitzea eta udal departamentuen artean **zeharkako** (generoa, hizkuntza irizpideak eta kulturartekotasuna) **neurrien txertaketa** sustatzea.

5.3.11. GAZTERIA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Kultura gastu politikan sartzen den **Gazteria** programa + % 2,93an handitu da 2022ko zuzkiduraren aldean, eta 2.388.604,00 € izatetik 2.458.610 € izatera igaro da (+ 70.006 €). Aitzitik pisu pixka bat txikiagoa du aurrekontuetan, lehen % 0,56 hartzen baitzuen eta orain % 0,53.

GAZTERIA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	507.106,00	493.130,00	-13.976,00	-%2,76
2. kapitulua	1.685.998,00	1.819.623,00	133.625,00	%7,93
4. kapitulua	141.000,00	145.857,00	4.857,00	%3,44
6. kapitulua	54.500,00	0,00	-54.500,00	-%100,00
GUZTIRA	2.388.604,00	2.458.610,00	70.006,00	%2,93

1. kapituluaren jaitsieraren arrazoia da hasiera batean zazpi lanpostu tekniko aurreikusi zirela, baina azkenik sei baizik ez dira bete. Horrek eta aurreko programetan jada azaldu ditugun arrazoietatik (soldata igoera, Gizarte Segurantzako kuotak, antzinatasunen eguneraketak, etab.) eratorritako igoerak ekarri dute

1. kapitulua - 13.976 €-an apaltzea.

Bestalde, **2. kapituluko igoeraren** arrazoi nagusia da **Haurtxokoen eta Gaztelekuen lizitazio berria**, ordu kopuru eta prezio handiagoekin (2022an baino 120.000 € gehiago).

2. kapituluaren barnean, **jarduera soziokulturala** partida (**226.06**) eta **Haurtxokoen eta Gaztelekuen** sarera bideratukoa (**227.04**) dira programa honen hartzaile diren kolektiboetan (neskatxak, haur nerabeak eta gazteak) zuzeneko eragina dutenak, eta garrantzitsuak dira genero ikuspegitik. Haurtxokoetara eta Gaztelekuetara bideratutako zuzkiduraren kasuan, kapitulu honetan zenbateko handiena baitu, **handitu egin da 2022koaren aldean**, eta 1.219.934 € izatetik 1.358.775 € izatera igaro da (+ % 11,43).

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.06	Actividades socioculturales	212.570,00
226.06.02	Haur eta gazte aisialdia (denbora libre eta Gabonak)	38.000,00
226.06.04	Gazte plana	24.000,00
226.06.05	Kultura hedatzea	5.200,00
226.06.06	Kultura sustatzea	41.500,00
226.06.07	Berdintasun programak	35.000,00
226.06.08	Ludopatiaren aurkako programa	10.000,00
226.06.09	Martx Up! Programa	38.870,00
226.06.10	0-5 adin tarterako Programa	20.000,00
227.04	Zerbitzu enpresak	1.358.775,00

• **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

GAZTERIA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	25.500,00	35.000,00	9.500,00	%37,25
GUZTIRA	25.500,00	35.000,00	9.500,00	%37,25

Handitu egiten da **226.07.07 Berdintasun programak** partidaren **aurrekontu zuzkidura**, guztira **35.000 €** ditu. Zenbateko horren bidez antolatzen dira, urtero, **gazte eta nerabeen artean indarkeria matxista prebenitzeari** buruzko jardunaldiak eta Beldur Barik kanpaina, antzeko helburua duten beste jarduera batzuez gain.

Haurtxokoen eta Gaztelekuen Sareak, jarduerak dinamizatzen dituen kanpoko kontratazioaren bidez, neskatzekin, haurrekin eta gazteekin lantzen ditu udal Berdintasunerako Planarekin lerrokatzen diren **hezkidetza jarduerak**. Horrexegatik, ekipamendu eta jarduera horiek estrategikotzat jotzen dira genero ikuspegitik.

• **GOMENDIOAK**

- ✓ **Eutsi egiten diogu** Gazteriak sustatutako programetan **interseksionalitatea txertatzeko lanetan aurrera egiten jarraitzeko gomendioari**.

5.3.12. DONOSTIA KIROLA, ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA / KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)

• **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Udalaren Tokiko Erakunde Autonomoa da Udal Kirol Patronatua, eta udalerrian kirola garatzea du helburu, kirola pertsonen oinarritzko eskubidea dela kontuan hartuta, dela hezkuntzaren eta prestakuntzaren aldetik, dela jolasaren aldetik, lehiakortasunaren aldetik edo ikuskizun gisa.

2022koaren aldean, 2023an + % 3,81ean igo da programaren aurrekontu zuzkidura, 18.893.750 € izatetik **19.163.036 €** izatera igaro da. Hiru aurrekontu programak osatzen dute aurrekontua: Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa, 1.062.000 €-ko zuzkidurarekin (% 305,34ko igoera 2022koaren aldean), Donostia Kirola, 3.851.965 €-ko zuzkidurarekin (2022an baino % 15,84 gutxiago) eta Kirol instalazioak, 12.456.167 €-ko aurrekontu zuzkidurarekin, 2022an baino % 10,18 gehiago.

Udalaren ekarpenaren guztizkoa 9.935.000 €-koa da **gastu arruntetan (2022an baino 715.000 € gehiago)** eta 0 €-koa **kapital gastuetan (2022an baino 550.000 € gutxiago)**.

DONOSTIA KIROLA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	5.330.784,00	5.456.000,00	125.216,00	%2,35
2. kapitulua	11.576.466,00	12.832.536,00	1.256.070,00	%10,85
3. kapitulua	35.000,00	25.000,00	-10.000,00	-%28,57
4. kapitulua	1.279.500,00	1.299.500,00	20.000,00	%1,56
6. kapitulua	672.000,00	0,00	-672.000,00	-%100,00
GUZTIRA	18.893.750,00	19.613.036,00	719.286,00	%3,81

• **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2. kapituluaren barnean, eutsi egin zaio 2022ko zenbateko berberari, guztira **21.735 €**-koa da aurrekontu zuzkidura, gisa honetan banakatua:

- **15.000 €** 227.02.02 partidan **Diagnostikoa eta Berdintasunerako Plana** egiteko.
- **4.235 €** 226.99 partidan **sentsibilizazio kanpainak** egiteko (Goazen Neskak!).
- **2.500 €** 226.02 partidan **Emakumeen Kirolaren ekitaldiko sarietarako**.

Bestalde, programaren beste kapitulu batzuetan sakondu da aurrean, eta aipatzekoa da **errendimendu handiko emakumezkoen taldeei** dirulaguntza izendunetan lehentasuna emateko ezarri den ekintza positiboa. Goi mailako emakumeen kirola bultzatzeko. Dirulaguntza horien guztizkoa 146.000 €-koa da, hau da, 4. kapituluko guztizko zenbatekoaren % 11,24 hartzen du.

Ondoko taulan daude jasota **dirulaguntza izendun** horiei buruzko xehetasunak:

Partida	Deskribapena	Zenbatekoa€
471.03	Errendimendu handiko emakumezkoen taldea: Real Sociedad de Fútbol S.A.D. (Belar hockeya 2023/24)	14.000,00 €
481.05	Errendimendu handiko emakumezkoen taldea: C.R. Kaiarriba (Arrauna 2023)	15.000,00 €
481.08	Errendimendu handiko emakumezkoen taldea: Bera Bera R.T. (Eskubaloia 2023/24)	45.000,00 €
481.09	Errendimendu handiko emakumezkoen taldea: Ibaeta K.E. (Saskibaloia 2023/24)	45.000,00 €
481.10	Errendimendu handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Urdin (Izotz Hockeya 2022/23)	6.000,00 €
481.11	Errendimendu handiko emakumezkoen taldea: Donostia Arraun Lagunak E. (Arrauna 2023)	15.000,00 €
481.12	Errendimendu handiko emakumezkoen taldea: C.H. Txuri Berri (Curling 2023/24)	2.000,00 €
481.13	Errendimendu handiko emakumezkoen taldeak: Atletiko SS (Atletismoa 2023/24)	4.000,00 €
Guztira		146.000,00 €

Beraz, guztira, **167.735 €-ko** gastu eraldatzaile globala aurreikusten da 2023an, hau da, **% 671,73ko** igoera izango da.

DONOSTIA KIROLA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
2. kapitulua	21.735,00	21.735,00	0,00	%0,00
4. kapitulua		146.000,00	146.000,00	
GUZTIRA	21.735,00	167.735,00	146.000,00	%671,73

Azkenik, **neurri osagarri** gisa, nabarmentzekoa da abonaturako (Kirol Txartela, Kirol Ekintza eta Kluben Lizentziak) pertsonen **datuak sistematikoki biltzea sexuaren arabera bereizita**. Baita **dirulaguntzen eskaeren** onuradunen datuak eta **dirulaguntzak justifikatzeko** txostenak (formulario normalizatuak) ere sexuaren arabera bereizita egotea. Datu horiek oso **lagungarriak** dira Donostia Kirolak esleitutako **baliabideen** eta kirola sexuaren arabera egiteko baliabideen **eragina balioesteko**.

Era berean, ekintza positiboko neurri gisa, **kluben egituretara bideratutako dirulaguntzetan** (laguntzak lehiaketan) **puntuazio bikoitzarekin** balioesten da **emakume federatuen kopurua**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Egungo **plan estrategikoa** amaitzeaz dagoela (2010-2022), **zeharka txertatu behar da genero ikuspegia** planaren ebaluazioan eta hurrengo planaren diseinuan.
- ✓ Sistematikoki **identifikatu eta neurtu behar dira** dirulaguntzekin eta jarduera eta/edo kirol diziplinekin lotutako **genero adierazleak**.

5.4. JARDUKETA EKONOMIKOAK

5 programa aztertu dira gastuen arlo honetan, zehazki hauek:

- Donostia Turismo.
- Donostiako Sustapena, SA.
- Dbus.
- Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa.
- Proiektu eta obrak.

5.4.1. DONOSTIA TURISMO

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostia-San Sebastián Turismoa, SA Donostiako Udalaren merkataritza sozietatea da, eta **Sozietate Anonimoaren** izaera du, **udal titulartasuneko**a erabat.

Donostiako lurralde eremuan turismoaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta indartzea du helburu.

2022koaren aldean, 2023an **+ % 16,15ean igo da** programaren **aurrekontu zuzkidura**, 3.827.986 € izatetik 4.446.023 € izatera igaro da.

Udalaren ekarpena 3. 150. 000 €-koa da **gastu arruntetan (2022an baino 252.614 € gehiago)** eta 482.000 €-koa **kapital gastuetan (2022an baino 410.000 € gehiago)**.

DONOSTIA TURISMO	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.058.198,00	2.175.533,00	117.335,00	%5,70
2. kapitulua	1.697.788,00	1.788.490,00	90.702,00	%5,34
6. kapitulua	72.000,00	482.000,00	410.000,00	%569,44
GUZTIRA	3.827.986,00	4.446.023,00	618.037,00	%16,15

6. kapituluko zuzkidura **Next Generation funtsetan** oinarritzen da, eta **turismo sektorearen iraunkortasunera eta modernizaziora** bideratuta dago.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2023rako honako jarduera eta aurrekontu zuzkidura hauek identifikatzen dira **gastu eraldatzaile** gisa, **guztira 12.500 €-rekin**.

- Lilatonen babesletza (1.500 €).
- Barne eta/edo kanpo prestakuntza berdintasun gaian (500 €).
- Webgunearen berrikuspena: genero ikuspegia duten irudiak eta hizkuntza (5.000 €).

- I. Berdintasun Planaren ebaluazioa eta II. Berdintasun Planaren lanketa (5.500 €).

Programan genero **ikuspegia txertatzen jarraitzeko bidean aurrera egiteko neurri osagarri** gisa, aipatzekoa da **sexuaren arabera bereizitako datuen sistematizazioa**. Honako datu hauetan sakonduko da 2023an:

- Norakoei buruzko inkestak Txostenean.
- Donostia Turismoko langileen absentismoa.

• GOMENDIOAK

- ✓ Hirian (ibilbideak, baliabideak, produktuak,...) **berdintasunaren eta feminismoaren balioa ikusaraztea.**
- ✓ Sexu jazarpenaren aurreko **prebentzio eta jarduera kanpaina** bat diseinatzea **hiriko bisitariei** zuzendua.
- ✓ Sexuaren arabera **bereizitako datuen sistematizazioa eta analisisa** programako pertsonekin lotutako datuen kudeaketa eremu guztietara **zabaltzea**. **Genero adierazleak** identifikatzea.

5.4.2. DONOSTIAKO SUSTAPENA, SA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Donostiako Sustapena SA **udal sozietate publikoa** da, eta hiriaren **ekonomia eta gizartea sustatzen eta garatzen** du, berrikuntzaren, ezagutzaren sorkuntzaren eta eraldaketaren, sareko lanaren eta proiektuen sustapen eta kudeaketaren bidez, hori guztia iraunkortasun irizpideei jarraiki.

2022koaren aldean, 2023an **+ % 47,23an igo** da programaren **aurrekontu zuzkidura**, 2022an 15.449.610 € izatetik 2023an **22.745.876 €** izatera igaro baita.

Udalak 7.025.000 €-ko **ekarpena** egiten du gastu arruntetan (2022an baino 5.000 € gutxiago) eta 397.000 € kapital gastuetan (2022an 0 €-koa izan zen).

DONOSTIA SUSTAPENA, S.A.	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	3.370.568,00	3.421.546,00	50.978,00	%1,51
2. kapitulua	7.453.542,00	7.900.582,00	447.040,00	%6,00
4. kapitulua	4.625.500,00	3.794.540,00	-830.960,00	-%17,96
6. Kapitulua		7.629.208,00	7.629.208,00	
GUZTIRA	15.449.610,00	22.745.876,00	7.296.266,00	%47,23

4. kapituluari dagokionez, dirulaguntza lerro hauetan gertatu dira jaitsierak:

- 400.000 €-ko jaitsiera "Eskualdeko Plan" delakoan. Diru sarrerekin lotuta dago gastu hori, eta txikiagoa da 2023an onartuko den deialdian.
- Eta kendu egin dira lerro hauek: "Saltoki txikiak suspertzeko plana", 2022an 120.000 €-ko zuzkidura izan zuena, eta "45 urtetik gorakoak kontratatze laguntzak", 2022an 250.000 €-ko zuzkidura izan zuena.

6. kapituluaren zuzkidura "**Talent House II**" programara bideratuta dago, eta sozietatearen funts propioekin ordaintzen da aktiboak besterenduta. Interesgarria litzateke programa honetan izandako parte hartzeari buruzko datuak **sexuaren arabera bereizita aztertzea**.

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

2023rako zuzendutako gastu eraldatzailerik hau aurreikusten da:

- **Emaktiva Ekialdea programa: 15.000 €.** Enplegurako zailtasunak dituzten **emakumeen enplegarritasuna hobetzeko** programa da Emaktiva. Kasu zehatz honetan, gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden Altza, Herrera, Mirakruz-Bidebieta eta Intxaurren emakumeei dago zuzenduta. **ReaktivaT Ekialdeko Barrutia** deritzon proiektu pilotu bat da, eta beste udalerri batzuetan jada ezarritako Emaktiva programaren metodologia erabiltzen du. Programa honen bidez emakume horien beharrezkoak moldatzen diren aukerak garatzen dira, eta emakumeei laguntzen zaie enplegua aurkitzen, beren autonomia handitzeko xedearekin.
- **Laguntza emakume ikertzaileentzat, 100.000 €-ko zenbatekoarekin.**
- **Emakumeak zientzian eta berrikuntzan ikusarazteko ekintzak: 10.500 €.**

Gainera, 2022ko aurrekontuari buruzko txostenean jada adierazi zen bezala, 2023rako azpimarratu da Donostiako Sustapena SAK sustatutako dirulaguntza lerro batzuen barruan emakumeei zuzendutako **ekintza positiboaren aurrekontu zuzkiduraren zenbatespena** kuantifikatzeko eta ikusarazteko beharra.

Modu horretan, alde batetik **laguntzen oinarriaren % 10eko igoera duten 4 laguntza lerro identifikatu dira emakumei zuzendutako baldin badira:**

- **Kolektiboak kontratatze laguntzak:** lanaldi osoko 6 hilabeteko kontratazioetarako igoeraren zenbatekoa: 600 €. **Zenbatespena: 6.000 €.**
- **Lanbideren kontratatze laguntzak:** lanaldi osoko 6 hilabeteko kontratazioetarako igoeraren zenbatekoa: 800 €. **Zenbatespena: 34.300 €.**
- **Talentu Berritzaileetarako laguntzak:** lanaldi osoko 6 hilabeteko kontratazioetarako igoeraren zenbatekoa: 1000 €. **Zenbatespena: 30.000 €.**
- **Talentua Itzultze laguntzak:** lanaldi osoko 12 hilabeteko kontratazioetarako igoeraren zenbatekoa: 2.500 €. **Zenbatespena: 5.000 €.**

Eta bestetik, **enpresak sortzeko laguntza lerro bat**, 250 €-ko gehikuntza duena onuraduna emakumea baldin bada. **Zenbatespena: 25.000 €.**

Ondorioz, eta kontuan hartuta emandako datu guztiak, zuzendutako eta zenbatetsiak, aurren **Gastu eraldatzailerik guztizkoa 225.800 €-koa** dela esan dezakegu.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Emakumeei zuzendutako **programa / dirulaguntzen eraginaren balorazioa** egitea eta zuzkidurak haien beharrianen arabera handitzea.
- ✓ **Emaktiva programa** hiriko beste auzo batzuetara **hedatzeko aukera balioestea**, auzo horien beharren arabera.

5.4.3. DBUS.

- **PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA**

Dbus enpresa publikoak **64.254.021 €-ko aurrekontua** du 2023. urterako, eta beraz, **2022ko aurrekontuarekin alderatuta, + % 40,76ko igoera esanguratsua du**. Udal aurrekontuetan % 13,91 hartzen du, eta beraz, pisu handiagoa du 2022koarekin alderatuta (% 10,75).

2023rako Udalaren ekarpena **29.871.170 €-koa** da gastu arruntetan (2022an baino 4.671.170 € gehiago) eta **19.159.098 €-koa kapital gastuetan** (2022an baino 18.809.098 € gehiago). Aurreikuspenen arabera zerbitzuak emateagatik 2023an sortuko diren diru sarrerak 17.312.000 €-koak izango dira.

DBUS	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	32.704.896,00	34.584.234,00	1.879.338,00	%5,75
2. kapitulua	9.232.572,00	9.657.029,00	424.457,00	%4,60
3. kapitulua	46.000,00	46.000,00	0,00	%0,00
6. kapitulua	2.665.000,00	19.159.098,00	16.494.098,00	%618,92
8. kapitulua	207.985,00	0,00	-207.985,00	-%100,00
9. kapitulua	791.260,00	807.660,00	16.400,00	%2,07
GUZTIRA	45.647.713,00	64.254.021,00	18.606.308,00	%40,76

6. kapituluaren zuzkiduraren zatirik handiena **Next Generation funtsetan** oinarritzen da, eta **emisio txikiko eremuak** sortzera, hiri garraioaren eraldaketa **digital iraunkorra** egitera eta **Innobus-Tur** programa garatzera bideratuta daude.

- **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Eutsi egiten zaio **Berdintasunerako III. Planaren** inplementaziora bideratutako **50.000 €-ko aurrekontuari**.

- **GOMENDIOAK**

- ✓ Berdintasun politikekiko eta Berdintasun Planarekiko **konpromisoei eustea**. Planaren eragina ebaluatzea (adierazleak).

5.4.4. HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Azpiegiturak gastu politikan sartzen den **Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa** programa - % 9,07an apaldu da 2022koarekin alderatuta, 1.575.047 € izatetik 1.432.213 € izatera igaro da. Aurrekontuetan duen pisua ere % 0,37tik % 0,31ra apaldu da.

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK	2021	2022	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	1.100.547,00	1.158.574,00	58.027,00	%5,27
2. kapitulua	44.500,00	273.639,00	229.139,00	%514,92
6. kapitulua	430.000,00		-430.000,00	-%100,00
GUZTIRA	1.575.047,00	1.432.213,00	-142.834,00	-%9,07

2. kapitulua handitu egiten da, alde batetik, **3 partida berri** sartu direlako, eta bestetik, 2022an jada bazen partida bat handitu egin delako.

Hauexek dira partida berriak:

- **226.99.02. Puntu kritikoak partida, 25.000 €**-ko zenbatekoarekin, hiriko "Puntu Kritikoen Mapan" hautemandako puntu kritikoak desagerraraztera bideratzeko.
- **226.09: Azterlan eta lan teknikoak partida, 100.000 €**-ko zenbatekoarekin. Partida honetan bildu nahi dira Zuzendaritza honetan kontratatu beharreko azterlan eta proiektu guztiak.
- **219.01: Hiri kontserbazioa partida, 50.000 €**-ko zenbatekoarekin.

Eta aipatutako igoerari dagokionez, **226.03 Publizitatea eta propaganda** partidan gertatu da, **50.000 €** gehiago baitaude **kontzientziazio kanpainak** egiteko.

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

2023ko aurrekontuan **25.000 €**-ko zenbatekoa esleitu da **puntu kritikoak** desagerrarazteko lanetatik etorritako gastuak ordaintzeko.

• GOMENDIOAK

- ✓ Udala oro har sustatzen ari den bezala, **zerbitzua emateko kontratazioaren pleguetan genero klausulak** txertatzen direla ziurtatu behar da.

5.4.5. PROIEKTU ETA OBRAK

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Azpiegiturak gastu politikan sartzen den **Proiektu eta obrak** programa - % 4,74an apaldu da 2022ko ekitaldikoaren aldean, eta 7.884.831 € izatetik 7.472.722 € izatera igaro da. Aurrekontuetan duen pisua ere apaldu egin da % 1,85etik % 1,62ra.

PROIEKTU ETA OBRAK	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	2.292.444,00	2.418.476,00	126.032,00	%5,50
2. kapitulua	92.254,00	87.404,00	-4.850,00	-%5,26
6. kapitulua	5.460.133,00	4.966.842,00	-493.291,00	-%9,03
GUZTIRA	7.844.831,00	7.472.722,00	-372.109,00	-%4,74

Jaitsiera hori batez ere **6. kapituluan** geratzen da. Hona hemen xehetasunak:

Proiektu eta obrak		4.966.842,00
601.01	Haizearen Orrazia birgaitzea	650.000,00
601.02	Estalkia	300.000,00
601.03	Altzan aparkaleku bat	210.000,00
601.07	Herreran puntu kritikoa	300.000,00
601.08	Puntu kritikoa hobetu, Misericordia kalea	200.000,00
601.09	Bera Berako urbanizazioa	700.000,00
601.13	Anoetako urbanizazioa	500.000,00
601.16	Bretxako urbanizazioa	898.498,00
622.01.01	Nao etxea	500.000,00
622.02.02	Bretxako pergola	558.344,00
643.01	Segurtasuna eta osasuna koordinatzea	150.000,00

• PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA

Guztira **500.000 €** esleitu dira gastu eraldatzaileetan, honako **puntu kritiko** hauek desagerrarazteko:

- 200.000 € Misericordia kaleko puntu kritikoa hobetzeko.
- 300.000 € Herrerako puntu kritikorako.

• GOMENDIOAK

- ✓ Zerbitzuak egin beharreko inbertsioak hautatzeko irizpideetan **genero ikuspegia txertatzea**.
- ✓ Udala oro har sustatzen ari den bezala, **kontratazio pleguetan genero klausulak txertatzen direla ziurtatu behar da**.

5.5. JARDUKETA OROKORRAK

Gastuen arlo honetan **programa bat aztertu da**: Herritarren parte hartzea.

5.5.1. HERRITARREN PARTE HARTZEA

• PROGRAMAREN AURREKONTU EBOLUZIOA

Zerbitzu orokorrak gastu politikan sartzen den **Herritarren parte hartzea** programa - % 5,95ean apaldu da **2022ko ekitaldikoaren aldean**, eta 2.912.684 € izatetik 2.739.293 € izatera igaro da. Aurrekontuetan duen pisua ere apaldu egin da % 0,69tik % 0,59ra.

HERRITARREN PARTE HARTZEA	2022	2023	Aldea	
	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	Zenbatekoa €	%
1. kapitulua	547.592,00	387.136,00	-160.456,00	-%29,30
2. kapitulua	319.888,00	300.700,00	-19.188,00	-%6,00
4. kapitulua	95.204,00	93.074,00	-2.130,00	-%2,24
6. kapitulua	1.950.000,00	1.958.383,00	8.383,00	%0,43
GUZTIRA	2.912.684,00	2.739.293,00	-173.391,00	-%5,95

1. kapituluari dagokionez, Udalaren **organigramaren aldaketa** baten ondoriozkoa da gertatutako aldaketa, izan ere, Herritarren Parte hartzea arloko Arduraduna Lehendakartzako programari atxikita egotera igaro da. Baita administrazioa 2 langile ere.

2. kapituluari dagokionez, **-19.188 €**-an apaldu da 2022koarekin alderatuta. Jaitsiera hori zenbatekoaren eta herritarren duen eraginaren ikuspegitik **garrantzitsuenak diren partidetan** gertatu da. **226.99 Bestelako gastuak** partida sortari buruz ari gara, guztizko zenbatekoa 2022ko 288.188,00 € izatetik 2023ko 269.000 € izatera igaro baita. Jarraian emango ditugu aldaketa horren xehetasunak:

- Alde batetik, honako partida hauek apaldu dira: 226.99.02 Lurralde partaidetza (- 57. 188 €), 226.99.93 Asoziazionismoa sustatzea (- 32.000 €) eta 226.99.06 partida (- 10.000 €).
- Eta bestetik, handitu egin da 226.99.04 Herritarren partaidetzarako udal zeharkakotasuna partida (+ 25.000 €), eta partida berriak gaitu dira: 226.99.10 Partaidetzako aurrekontuak partida (40.000 €), garrantzi handikoa aurrekontu prozesuan genero ikuspegia txertatzeko prozesuari dagokionez, eta 226.99.09 Herri galdeketa partida (Igeldo), 15.000 €-ko zenbatekoarekin.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
226.99	Bestelako gastuak	269.000,00
226.99.02	Lurralde partaidetza	91.000,00
226.99.03	Asoziazionismoa sustatzea	18.000,00
226.99.04	Partaidetzarako udal zeharkakotasuna	80.000,00
226.99.05	Sektore eta biztanleria partaidetza	15.000,00
226.99.06	Sektore eta gai partaidetza	10.000,00
226.99.09	Herri galdeketa	15.000,00
226.99.10	Partaidetzako aurrekontuak	40.000,00

4. kapituluaren barnean, jaitsiera bat gertatu da **481.07 Egia Bizirik auzo elkartearentzako dirulaguntza partida desagertu** ondoren. Horrexegatik apaltzen da kapitulu hau 2022ko 95.204 €-ko zenbatekotik 2023ko 93.074 €-ko zenbatekora.

Partida	Gastuen deskribapena	Zenbatekoa€
481.01	Dirulaguntzak eta hitzarmenak	70.374,00
481.02	Zubietako Batzorderako transferentzia	5.000,00
481.04	Igeldoko Herri Kontseilurako dirulaguntza	7.000,00
481.05	Osteguna-Irale Auzo Elkartea	3.500,00
481.07	Egia Bizirik elkarterako dirulaguntza	0,00
481.08	Parte Zaharrean bizi auzo elkarterako dirulaguntza	7.200,00

● **PROGRAMAN SARTUTAKO GASTU ERALDATZAILEA**

Eutsi egiten zaio hiriko **Puntu kritikoen Mapa** proiektura bideratutako **10.000 €-ko zuzkidurari**. (226.99.06 Sektore eta gai partaidetza partida).

Bestalde, 2023an garatu edo eutsi beharreko **neurri osagarri** batzuk aipatzen dira:

- Aholku Batzordeen ebaluazioan genero ikuspegia txertatzea, helburu bikoitzarekin, horien ibilbidea baloratzeko eta emakumeek organo horietan duten parte hartzea areagotzeko neurriak proposatzeko.
- Eutsi egiten zaio parte hartze datuak sexuaren arabera bereizita izateko praktikari.
- Batzordeen bileretan datuak sexuaren arabera bereizita biltzeko sistema inplementatzea.
- Kontratazio pleguetan eta dirulaguntzen oinarrietan genero irizpideei eustea.

● **GOMENDIOAK**

- ✓ **Berdintasun politikekiko konpromisoari eta puntu kritikoetan esku hartzeko prozesuan duten inplikazioari eustea.**
- ✓ **Genero ikuspegia eta interseksionalitatea parte hartzeko prozesu guztietan txertatzea, nola diseinuan eta garapenean hala ebaluazioan.**